Gipuzkoako Foru Aldundia
Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial

Pla. 57-C/2026

KONTRATU MOTA:	**OBRAK**			
PROZEDURA:	**IREKIA**			
ARAU HARMONIZATUPEKO KONTRATUA		**BAI**	**X**	**EZ**
ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA		**BAI**	**X**	**EZ**
LIZITAZIO ELEKTRONIKOA				

Tramitazioa	**X**	**Arrunta**	**Premiazkoa**
Tramitazio aurreratua			

Espediente zenbakia:
1-NC-48/2023

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

EZAUGARRIEN TAULA

1.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
Administrazio kontratatzailea	Gipuzkoako Foru Aldundia
Kontratazio organoa	Diputatuen Kontseilua
Departamentua / Zerbitzu kudeatzailea	Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentua
Departamentuaren/Kudeaketa Zerbitzuaren helbidea	Miramon pasealekua 166, 20014 Donostia
Helbide elektronikoa	bidekontratazioa@gipuzkoa.eus
Izapidetze unitatea	Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuko Kontratazio Zerbitzua
Kontabilitate eskumenak dituen administrazio-organoa.	Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiaren Kontabilitate Zerbitzua

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:	https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/kontratatzailearen-profila-berria

3.- KONTRATUAREN OBJEKTUA				
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO				
CPV kodea(k): 45233120-6 Errepideak egiteko lanak				
Sortaka lizitatzeko aukera	BAI		EZ	**X**

4.- PROIEKTUAREN EGILEAK
GIRDER INGENIEROS S.L. (Miguel A. Otero Barreiro), 2024ko azaroan

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (BEZa BARNE)	
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (% 21eko BEZa barne)	7.873.151,36 euros
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren banakapena.	Zuzeneko eta zeharkako gastuak, baita horiek zehazteko kalkulatutako bestelako gastu posibleak ere, 14. eranskinean ageri dira zehaztuta, “prezioen justifikazioa” izenekoan.

6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZik GABE)

6.1.- Zenbatekoa: 7.808.083,99 €

6.2.- Kalkulatzeko metodoa

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe)	Luzapenak	Kontratu aldaketak	BALIO ZENBATETSIA GUZTIRA
6.506.736,66 €	-	1.301.347,33 €	7.808.083,99 €

7.- FINANTZAKETA	Portzentajea
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 100

8.- URTEKOAK

EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	ZENBATEKOA
2027	0810.110.611.01.04	3.400.000,00 €
2028	0810.110.611.01.04	4.473.151,36 €

9.- EGIKARITZEKO EPEA

Epe osoa: HAMABI (12) HILABETE

Epe partzialak	BAI		EZ	X
Harrera partzialak	BAI		EZ	X

10.- ORDAINTZEKO ERA

Hileroko ziurtagiriak

11.- ALDAERAK ONARTZEA

BAI		Betekizunak, modalitateak eta alderdiak
EZ	X	

12.- PREZIO BERRIKUSPENA

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

BAI		Berrikusteko formulak
EZ	X	

13.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

1) BAIMEN / GAIKUNTZA ENPRESARIALAK EDO PROFESIONALAK (SPKLren 65. art.)

Bidezkoa da BAI [ ] EZ [X]

2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

3) KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

4) SAILKAPENA

Derrigorrezkoa BAI [X] EZ [ ]

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
G	6	6

(*) Espainiakoak ez diren Europako Erkidegoko enpresak badira, edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira, nahitaezko sailkapena aldatu ahal izango da, sailkapen hori lortzeko eskatzen den kaudimena justifikatuta. Horretarako, Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, behar diren agiri osagarriekin batera (SPKLren 97. artikulua), edo kaudimena egiaztatzeko agiriekin batera (SPKLren 86. artikulua).

5) INGURUMENAREN KUDEAKETAREN ETA KALITATE BERMEAREN ARAUAK BETETZEA EGIAZTATZEA

BAI [ ] EZ [X]

14.- GIZA BITARTEKOAK ETA BITARTEKO MATERIALAK NAHITAEZ BIDERATZEKO KONPROMISOA

BAI [ ] EZ [X]

15.- AZPIKONTRATAZIOA

Puntuaziorik onena lortzen duen enpresak azpikontratatzeko aurreikusitako kontratuaren zatia, zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazteko betebeharra:	BAI [X]	EZ [ ]
Azpikontratistei zuzenean ordaintzea.	BAI [ ]	EZ [X]
Azpikontratatu ezin diren lan kritikoak.	BAI [ ]	EZ [X]

16.- BERMEAK

BEHIN-BEHINEKOAK	BAI [ ]	EZ [X]

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

BEHIN BETIKOA	BAI	X	EZ	**Zenbatekoa:** adjudikazio prezioaren % 5, BEZik gabe.
OSAGARRIA	BAI		EZ	X
BERME-ALDIA: bi urte (2), obrak jasotzen direnetik aurrera.				

17- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK	
1) BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK	
BAI X EZ	
Lan programa eta gauzatze epea zehazten dituen memoria teknikoa	**0 – 25 puntu**
Eskaintzetan ondorengo atalak garatu beharko dira, eta atal bakoitzaren zuzentasuna, azterketaren xehetasun maila eta lizitazioaren xede den kontratuarekiko egokitasuna baloratuko dira.	
• Proiektatutako obraren deskribapen orokorra (gehienez 3 DIN A4 orrialde)	0 – 4 puntu
• Proiektuan aurreikusitako lur-mugimenduen analisia: balantzea eta soberako materialaren kudeaketa (gehienez 2 DIN A4 orrialde)	0 – 3 puntu
• Egiturak eraikitzeko prozedura I: hormak egitea (gehienez orrialde 3 DIN A4)	0 – 4 puntu
• Egiturak eraikitzeko prozedura II: ezpondei eustea (gehienez 3 DIN A4 orrialde)	0 – 4 puntu
• Ukitutako zerbitzuak: Hornidura, saneamendu, energia elektriko eta gas zerbitzuak birjartzeko lanen deskribapena (gehienez 2 DIN A4 orrialde)	0 – 3 puntu
• Obrak egiteko faseak eta zirkulazio desbideratzeak Trafikoari eragindako kalteak murrizteko neurriak (gehienez 3 DIN A4 orrialde)	0 – 4 puntu
• Proposatutako lan-programa, Gantt-en diagrama bidez, lanen planteamendu orokorrarekin bat etorriz. Bide kritikoa adieraziko du (gehienez DIN A3 orrialde bat)	0 – 3 puntu
Ingurumen irizpideak	**0 – 5 puntu**
Bideragarritzat jotzen diren proposamenak baloratuko dira. Nolanahi ere, proposamenen kostua egindako eskaintza ekonomikoan sartuta dagoela joko da	
• Obraren ingurumen plana, zeinak jasoko duen inpaktu eta neurri zuzentzaileen identifikazioa eta ingurumeneko zaintza plana (gehienez 4 DIN A4 orrialde).	0 – 5 puntu
Berdintasuna sustatzeko irizpideak	
• Lana, bizitza pertsonala eta familiakoa uztartzeko neurriak hartzea, ordutegi edo baimen moduan, kontratuan beren jarduera garatzen dutenentzat.	
• Emakumeak gizarteratzeko konpromisoa kontratazio berriak formalizatzeko orduan	

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

* Nolanahi ere, lizitatzaileek aurretik ezarritako ekintza guztien baliokideak diren ekintza positiboak sustatzen dituztela ulertuko da, eta, ondorioz, genero-berdintasunaren aldeko ekintza positiboko neurriei esleitutako puntuazioa lortuko dute (50 puntu), eskaintza aurkezten duen enpresak edo enpresek honako hauek egiaztatzen dituztenean:

- "Berdintasuna enpresan" estatuko bereizgarria, "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Laguntzailea" bereizgarri autonomikoa edo "genero-berdintasunarekin antzeko konpromisoa bermatzen duen Administrazio Publikoak onartutako beste edozein bereizgarri" edukitzea.
- Enpresaren funtzionamenduan ISO 53800 araua edo baliokidea ezarri dute.

Eskaintza ABEE bat eratzeko konpromisoarekin aurkezten bada, berdintasunerako ekintza positiboei dagozkien puntuak soilik esleituko dira aurreko paragrafoan jasotako inguruabarren bat egiaztatuz, baldin eta egiaztapena ABEEa osatuko duten enpresa guztietara iristen bada.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT edo BI zenbakiko artxibo elektronikoetan HIRU zenbakiko artxiboan sartu beharreko eskaintza ekonomikoa ezagutzea edo ondorioztatzea ahalbidetzen duten dokumentuak edo datuak sartzen dituztenak.

EZ SARTU IRIZPIDE AUTOMATIKOEI BURUZKO DATU, INFORMAZIO EDO DOKUMENTAZIORIK, AURRETIKO BETEKIZUNEI ETA BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOZKIEN ARTXIBOETAN.

Dokumentazioaren gehieneko luzera (azalak edo aurkibideak kontuan hartu gabe): atal bakoitzean adierazitakoa.

Aurkezten diren idatzietan nahitaez bete behar diren irizpideak*

Irizpide hauei dagokionez, aurkezten diren testu idatzi guztien idazkerak ondoko parametroak bete beharko dituzte:

- Gutxieneko marjinak:
  Behekoa eta goikoa: 2,5 cm.
  Ezker-eskuinekoa: 3 cm.
- Letra mota eta neurria: arial arrunta, tamaina 10 gutxienez
- Lerroartea: bakuna

** Irizpide horiek ez zaizkie aplikatuko grafikoei, irudiei, eskemei, taulei...*

2) FORMULAK APLIKATUZ BALIOETSI BEHARREKO IRIZPIDEAK

Irizpidea	Haztapena
Prezioa	**0 – 65 puntu**

PREZIOA (FORMULA):

Justifikazioa:

Eskaintza ekonomikoaren haztapena merkatuko prezioari egokitu behar zaio, kalitate handiko eskaintza lortzen saiatzeko. Kontratuaren kostuak aldez aurretik baloratu dira dagokion egikaritze proiektuan, baina lizitazioaren unean merkatuko balioetara egokitzea falta da. Horretarako, aurkeztutako eskaintzen batez besteko baja hartzen da kontuan, eta hortik aurrera hainbat mugarri eta puntuazio tarte ezartzen dira.

Batez besteko baxuaren azpitik definitutako tarteek edo segmentuek batez besteko baxuak eta lizitazioaren gehieneko baxuak definitutako tarteak edo segmentuak baino malda handiagoa dute; beraz, puntuen esleipena ez da hertsiki lineala, baina bermatzen da, nolanahi ere, eskaintzarik merkeenak irizpide horrek esleitutako puntuazio handiena lortuko duela.

Era berean, balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko parametroak definitu ditu.

Formularen deskribapena:

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekin zatituta eta ehuneko hainbestean adierazita, hartuko da beherapentzat.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak haietako bakoitzaren baja-ehunekoaren interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, ondorengo lau mugarriek mugatutako zuzenen segmentuen barruan:

Mugarria	Mugarriaren puntuazioa
Beherapen maximoa (BMAX):	Pmax = Gehieneko puntuazioa
Batez besteko beherapena (BMED)	Pmed = [100- (Bmax-Bmed)] x Pmax/100
% 20 Batez besteko beherapena (0,2Bmed)	(100-1,6 x Bmed) x Pmed/100
Beherapena = 0 (lizitazio prezioa)	0,00

Eskaintzaren alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamarrekoan biribilduko da.

Eskaintza batek balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituela erabakitzeko parametroak.

Hasiera batean, anormalki baxutzat joko dira honako kasu hauetan dauden eskaintzak:

1. Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.

2. Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintza baino % 20 txikiagoa dena. Anormalki baxutzat joko da, halaber, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino % 25 txikiagoa den eskaintza.

3. Hiru lizitatzaile edo gehiago daudenean, onartutako eskaintzen prezio guztien batez besteko aritmetikoa baino % 10 txikiagoak direnak.

Nolanahi ere, deklarazioa egin aurretik, ustez horietan sartuta dauden enpresa lizitatzaile guztiei informazioa eskatu beharko zaie, bai eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

Berdinketak hausteko irizpide espezifikoak.

Adjudikazioan lehentasuna izango dute araudiak ezarritakoa baino desgaitasun handiko langile kopuru handiagoa duten enpresak, baldin eta proposamen horien baldintzek besteak gainditu egiten badituzte adjudikazioaren oinarri diren irizpideen ikuspegitik. Proposamen abantailatsuenean berdindutako hainbat enpresa lizitatzailek egiaztatzen badute desgaitasuna duten pertsonekin lan harremana dutela araudiak ezarritakoa baino ehuneko handiagoan, lehentasuna izango du kontratua adjudikatzean plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiagoa duen lizitatzaileak. Berdinketa ez bada hautsi, zozketa egingo da.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek frogatu egin beharko dute inguruabar hori, dagozkien lan kontratuen eta Gizarte Segurantzaren kotizazio dokumentuen bidez, baita zuzenbideak aurretik aipatutako irizpide sozialak egiaztatzeko onartutako beste edozein dokumenturen bitartez ere.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

18.- EGIKARITZEAREN BALDINTZA SOZIAL BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honek bete egin beharko ditu lanaren, Gizarte Segurantzaren, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorretan indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiturazko xedapenei, baita, bereziki, une bakoitzeko Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren azken testuari, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoari, ere, indarrean dauden beste enpresako hitzarmen edo itun batzuk, hartan xedatutakoa hobetu dezaketen, beste batzuk gorabehera.

Horrez gain, azpikontratazio alorreko izaera sozialeko betebeharrak bete beharko ditu, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko alorretakoak, agirian zehaztutakoak.

19.- EGIKARITZEKO BESTE BALDINTZA BEREZIAK

Egikaritzeko baldintza bereziak agiri honen "*38.2 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak*" klausulan aurreikusitakoak dira.

20.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Kontratu honi aplikatu dakizkion funtsezko obligazioak SPKLan eta agiriaren klausuletan aurreikusitakoak dira.

21.- LAN-PROGRAMA

Kontratistak aurkeztea bidezkoa da: BAI [X] EZ [ ]

22.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK

BAI [X] EZ [ ]

Obrak egin bitartean lursailak proiektuan aurreikusitakoak baino ezaugarri kaltegarriagoak erakusten baditu, honako kapitulu hauek aldatu ahal izango dira, gauzatzeko benetako baldintzetara egokitzeko:

02 LURREN MUGIMENDUA
03 BIDE-ZORUAK
05 EGITURAK

Era berean, lurpeko eraginpeko zerbitzuen errealitatea proiektuan jasotakoa ez bada, honako kapitulu hauek aldatu ahal izango dira, zerbitzu horien errealitatera egokitzeko:

09 ZERBITZUAK BERREZARTZEA

Kontratu-aldaketa horien zenbatekoa ez da izango hasierako prezioaren % 20 baino handiagoa

23.- ZIGORRAK

BAI [X] EZ [ ]

Kontratu honi aplikatu beharreko zigorrak SPKLn eta baldintza-agiriko klausuletan aurreikusitakoak dira. Gauzatzeko epearen atzerapenagatik, egunean 0,60 euroko zigorrak ezarriko dira atzerapen-egun natural bakoitzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

24.- ASEGURUAK

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA: adjudikazio zenbatekoa (BEZa barne)

ERAIKUNTZAKO ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA:

- Adjudikazioaren guztizko zenbatekoa (BEZ barne).
- Proiektuaren aldaketen ondorioz kontratuaren zenbatekoa aldatzen bada, bermatutako kapitala proportzio berean aldatuko da.

25.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiaren, edo kontratazio organoak prozedura bertan behera uztearen, ondorioz, enpresa lizitatzaileei konpentsatu egingo zaizkie izandako gastuak, 1.000 euroko zenbatekoraino.

26.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK

Instalazioak eta materialak	BAI		EZ	X
Instalazioak eta ekipoak	BAI		EZ	X

27.- SAIAKUNTZAK

Obraren materialen eta unitateen entseguak eta analisiak eta txosten espezifikoak egiteko gastuak kontratistaren kontura izango dira, obraren prezioaren % 1era arte.

28.- ERAIKITZEKO ETA ERAISTEKO HONDAKINEN ARLOKO PLANA

Plana aurkeztea dagokio	BAI	X	EZ	

29.- OBRAREN GAUZATZEA AMAITU DELA OHARTARAZTEKO EPEA

45 egun baliodun	
Beste epe laburrago bat (20 egun baliodun)	X

30.- AZKEN ZIURTAPENA ONARTZEKO EPEA

3 hilabete	X
Beste epe bat >3 hilabete <5 hilabete	

31- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK

Ez dira eskatzen

32.- KONTRATAZIO MAHAIA

MAHAIBURUA:	Artapeneko eta Sistema Adimendunetako zerbitzuburua, Iñigo Zufiria Zatarain

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

1. BOKALA:	Artapeneko eta Sistema Adimendunetako Zerbitzuko Instalazio eta Ekipamendu Adimendunetako atalburua, Ane Capetillo Arranz
2. BOKALA:	Bide Azpiegituren Birgaitze eta Bulego Teknikoko Zerbitzuko herri lanetako erdi mailako teknikaria, Maider Apaolaza Lizarazu.
3. BOKALA:	Errepidetako Lege eta Administrazio Ataleko burua, Jon Ander Arrieta Berasarte.
4. BOKALA:	Kontuhartzailetza eta Auditoretzako Zerbitzuko burua, Xabier Lertxundi Agote.
IDAZKARIA:	Bide Azpiegituretako Departamentuko Kontratazio Zerbitzuko burua, Imanol Zubizarreta Arteche

33.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA
Proposamenak aurkezteko epea ez da hogeita hamar egun natural baino gutxiagokoa izango, lizitazio-iragarkia, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Diputatuen Kontseiluaren AD 67-C/2026 Erabakiaren bidez onetsia.

Donostia, 2026ko irailaren 29a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Elixabete Martínez Iruretagoiena.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Aurkibidea

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK 13
1.- Kontratuaren objektua 13
2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak 13
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 13
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia 13
5.- Kontratuaren prezioa 13
6.- Kreditua izatea 14
7.- Obrak gauzatzeko epea 14
8. Prezio berrikuspena 14
9.- Kontratuaren publizitatea. 14
10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan 14
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak 15
12.- Errekurtso araubidea 16
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA 16
13.- Espediente mota eta lizitazio modua 16
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak 16
15.- Behin-behineko bermea 17
16.- Proposamenak aurkeztea 17
17.- Lizitatzaileei informazioa ematea 17
18.- Proposamenen edukia 18
19.- BAT zenbakiko fitxategi elektronikoa: “AURREKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” 18
20.- BI zenbakiko fitxategi elektronikoa: “BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” 20
21.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoa: “ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” 20
22.- Aldaerak onartzea 21
23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak 21
24.- Kontratazio mahaia 21
25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea 22
25.1.- BAT zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta dokumentazio administratiboaren kalifikazioa 22
25.2.- BI zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BI fitxategi elektronikoa dagoenean soilik) 22
25.3.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta aztertzea 22
25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak 22
26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzaren publizitatea eta ukitutako lizitatzaileei jakinaraztea 23
27.- Adjudikazio irizpideak 23
28.- Eskaintzak baloratzea 23
29.- Eskaintzak argitzea 24
30.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak 24
31.- Prozedurako ondorengotza 24
32.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Administrazioak atzera egitea 24
33.- Adjudikazioa 24
33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio proposamena 24
33.2. Prezio-kalitate erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurreko betekizunak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea eta adjudikazio proposamena 25

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

33.3.- Behin betiko bermea 27
33.4.- Adjudikazioa 28
34.- Kontratua formalizatzea 28
III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA 29
35.- Kontratuaren arduraduna 29
36.- Kontratistaren ondorengotza 30
37.- Kontratua besteri lagatzea 30
38.- Enpresa kontratistaren betetze baldintzak eta betebeharrak 31
38.1.- Baldintza orokorrak 31
38.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak 31
38.3.- Informazioaren segurtasun arloko betebeharrak 35
38.4.- Kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko betebeharrak 36
38.5.- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinen arloko betebeharrak 37
38.6.- Lantaldeari eta langileei buruzko betebeharrak 37
38.7.- Makineriari eta bitarteko teknikoei buruzko betebeharrak 37
38.8.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak 38
39.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak 38
40.- Klausula sozialak ez betetzearen ondorio juridikoak 38
41.- Berandutza zigorrak eta beste zigor batzuk 41
42.- Zuinketa egiaztatzea 42
43.- Lan programa 43
44.- Laneko segurtasun eta osasun plana 43
45.- Beste batzuei eragindako kalteak eta galerak 44
46.- Obretan gertatutako kalteak 44
47.- Kontratuaren aldaketak 45
47.1.- Aurreikusitako aldaketak 45
47.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak 46
47.3.- Aldaketa-araubidea 46
48.- Obrak etetea 46
49.- Neurketak, balorazioa eta konturako ordainketak 47
50.- Obraren egikaritzea amaitu dela ohartaraztea 48
51.- Obraren harrera 48
52.- Neurketa orokorra eta azken ziurtapena 49
53.- Berme-epea eta likidazioa 49
54.- Ezkutuko akatsen gaineko erantzukizuna 50
55.- Kontratua suntsiaraztea 50
56.- Obrak ondare eta eskubideen inbentario nagusira gaineratzea 51
57.- Kontraesanak 51
I.- ERANSKINA - LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK 52
I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK 53
II. ERANSKINA.- KONTRATAZIO AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK 55
III. ERANSKINA - ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA OSATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA 56
IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPEN EREDUA 58
V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDE BATEN PARTE IZATEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA 59

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

VI.- JARDUNBIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA, KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKOA, BETETZEAREN INGURUKO ADIERAZPEN EREDUA 60

VII.- ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATUEN ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA 62

VIII. ERANSKINA. ABAL EREDUA. 63

IX. ERANSKINA- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULEN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO BESTE ELEMENTU BATZUEN EREDUA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN 64

X.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK ETA EGIKARITZEKO BALDINTZA SOZIAL BEREZIAK EBALUATZEKO SISTEMAREN PROPOSAMENA 66

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren objektua

1.- Kontratuaren xedea da agiri honen ezaugarrien taulako 3. atalean aipatutako proiektua egikaritzea. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen 9/2017 Legeak (SPKL), azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, aurreikusten dituen kasuetan tramitatu daitezkeen aldaketak.

Atal horretan hori xedatzen denean, bertan jasotako baldintzei eta mugei jarraituz, sortaka lizitatuko da, SPKLaren 99. artikuluak xedatutakoaren arabera. Ulertuko da agiri honetan kontratuari edo enpresa adjudikaziodunari egindako erreferentzia guztiak kontratua, hala badagokio, osatzen duen lote bakoitzari dagozkiola.

2.- Kontratuen hiztegi erkideko (CPV) izendapenari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taularen 3. atalean dago jasota.

2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak

1.- Kontratu honekin aseko dira obra proiektuaren memorian deskribatutako beharrak, bertan deskribatutako eta planoetan definitutako obrak egikarituz, preskripzio tekniko partikularren agirian jasotako ezaugarriekin eta kalitatearekin.

2.- Proiektu hori, hura onartzeko ebazpenetik ondorioztatu daitekeenez, SPKLaren 233. artikuluan eskatutako dokumentu guztiek osatzen dute, eta hura osatzean jarraitu egin zaio 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorrak (APKLEO), II. liburuko I. tituluaren II. kapituluko 2. atalean xedatutakoari.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, SPKLaren 100.2. artikuluaren arabera kalkulatutakoa, ezaugarrien taularen 5. atalean gehieneko aurrekontu moduan adierazitakoa da, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren zenbatetsitako balioa, SPKLaren 101. artikuluaren arabera kalkulatutakoa eta ezaugarrien taularen 6. atalean jasotakoa, kontuan hartu da kontratu honi aplikatu beharreko adjudikazio prozedura eta izango duen publizitatea hautatzeko, baita pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean, lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta errekurtso araubide aplikagarria ezartzeko ere. Zenbatetsitako balio horren barruan sartuko dira, horiek aurreikusi direnean, ezaugarrien taularen 22. atalean adierazitako kontratuaren goranzko balizko aldaketak.

2.- SPKLaren 101.5. artikuluan aurreikusitakoaren ondoreetarako, ezaugarrien taularen 6. atalean adierazten da kontratuaren zenbatetsitako balioa zehazteko erabilitako metodoa.

5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa izango da hura adjudikatzean irtendakoa, eta partida independente moduan adierazi beharko da BEZa. Kontratuaren prezioan sartutakotzat joko dira edozein motatako zerga, tasa eta kanon aplikagarriak, baita adjudikaziodunari agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz sortutako gastu guztiak ere.

2.- Enpresa kontratistari agirian jasotako obligazioaren eta kontratuari aplikatu beharreko gainerako xedapenen ondorioz sortutako gastu guztiak, lizitazioaren xede den proiektuan egikaritzeko zuzeneko eta zeharkako kostuen artean ez daudenak, egiturazko gastu orokorren ehunekoan sartutakotzat joko dira.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

6.- Kreditua izatea

1.- Kreditu egokia eta nahikoa dago egin beharreko kontratuaren gastuari aurre egiteko. Kontratua finantzatuko da ezaugarrien taularen 8. atalean jasotako aurrekontu partidaren edo partiden kargura, bertan ezarritako urteko ordainketaren edo ordainketei jarraituz.

2.- Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitakoaren arabera, SPKLaren 117.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, espedientea aurretiaz izapidetzen bada, kontratuaren adjudikazioa egongo da kontratutik eratorritako betebeharrak dagokion ekitaldian bermatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen eteteko baldintzaren mendean.

7.- Obrak gauzatzeko epea

1.- Obrak guztiz egikaritzeko gehieneko epea izango da ezaugarrien taularen 9. atalean jasotakoa, edo kontratuaren adjudikazioan zehaztutakoa. Epe partzialak izango dira, hala badagokio, lan programaren onarpenean hala finkatutakoak.

2.- Kontratuaren aldia luzatu ahal izango da, SPKLaren 29., 192. eta hurrengo artikuluetan eta APKLEOaren 98. eta 100. artikuluaren xedatutako kasuetan eta baldintzetan. Edozein kasutan, epea luzatzea berariaz adostu behar da.

3.- Epea zenbatzen hasiko da zuinketa egiaztatzeko aktaren dataren hurrengo egunean, administrazioak obra hastea baimentzen badu.

4.- Enpresa kontratistak beharrezkoa baino abiadura handiagoz egin ahal izango ditu lanak kontratuko epean egikaritzeko, salbu eta administrazioak uste badu hori desegokitzat jotzeko arrazoirik dagoela. Aurrekoa gorabehera, enpresa kontratistak ez du eskubiderik izango dagokion urteko ordainketan zehaztutako prezioa baino diru kopuru handiagoa jasotzeko, eta zenbateko hori gainditzen duten egiaztagiriak ordainduko dira behin hurrengo urtea hasitakoan.

8. Prezio berrikuspena

1.- Bidezkoa bada, berrikuspena ezaugarrien taularen 12. atalean adieraziko da, eta bertan azalduko da aplikatu beharreko formula.

2.- Prezioak SPKLn jasotako baldintzetan berrikusiko dira (103. artikulua eta hurrengoak).

9.- Kontratuaren publizitatea.

1.- Kontratua adjudikatzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiaren inguruko informazioa eskainiko da, klausula administratibo partikularren agiriak eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

3.- SPKLaren 63. artikuluari jarraituz kontratatzailearen profilean kontratu honen inguruan argitaratuko den informazioa kontsultagarri egongo da ezaugarrien taularen 2. atalean adierazitako helbide elektronikoan.

4.- Kontratuak arau harmonizatuaren mendean daudenean, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLaren 135. artikuluari jarraituz.

10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan

Honako organismo hauetan lortu ahal izango da indarrean dauden betebeharren eta xedapenen informazioa, honako alor hauei lotuta:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentua eta gainerako zerga administrazioak.
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutua organismo autonomoa
- Hizkuntza berdintasuna: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetza.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. IHOBE SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
- Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

1.- Kontratu hau administratiboa da, SPKLaren 25. artikuluak xedatutakoari jarraituz. Alderdiak berariaz egongo dira agiri honek eta dagokion proiektuak xedatutakoaren mendean.

2.- Agiriek aurreikusten ez duten guztiari dagokionez, kontratuak jarraitu egingo die SPKLari; 817/2009 Errege Dekretuari, maiatzaren 8koari, partzialki 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, garatzen duenari (817/2009 ED); Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrari, 1098/2001 Errege Dekretuaren, urriaren 12koaren, bidez onartutakoari (APKLEO); eta Estatuko obrak kontratatzeko Klausula Administratibo Orokorren Agiriari, 3854/1970 Dekretuak, abenduaren 31koak, onartutakoari, aurrekoaren aurka ez doan guztian. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoako Foru Aldundian (3/2016 Legea, apirilaren 7koa, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzekoa) aplikagarriak diren beste edozein xedapeni jarraituko dio, kontratazioa arautzen badute.

3.- Edozein kasutan, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak aplikatuko dira SPKLaren aurka ez badoaz.

4.- Bestela, administrazio zuzenbideko gainerako arauak izango dira aplikagarriak, eta, bestela, zuzenbide pribatukoak.

5.- Kontratu izaera dute dokumentu hauek:

- Administrazio klausula partikularren agiria
- Kontratu-izaera duten proiektuko dokumentuak:
  - Preskripzio tekniko partikularren agiria
  - Prezioen koadroak
  - Planoak
  - Proiektuaren memoria, 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrak 128. artikuluan xedatzen duenarekin bat eginez.
- Onartutako lan-programa (baldin badago)
- Kontratua formalizatzeko dokumentua

6.- Agiri hau eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuak ez badatoz bat, agiri hau gailenduko zaie.

7.- Kontratuaren klausulak haien edozein baldintzatan, kontratu izaera duten gainerako dokumentuak eta adostutako egikaritzean aplikagarriak diren jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna salbuesten horiek bete beharraz.

8.- Kontratazio organoak, SPKLaren 190. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, kontratu administratiboa interpretatu dezake, eta hura betetzeak ekartzen dituen zalantzak argitu ditzake. Horrez gain, egindako kontratua aldatu ditzake, eta horiek suntsiaraztea erabaki dezake, SPKLak eta hura garatzeko xedapenek ezarritako mugen barruan, bertan ezarritako betekizunei eta ondorioei jarraituz.

9.- Kontratua aplikatzetik edo interpretatzetik, egikaritzetik, betetzetik edo suntsiaraztetik sortu daitezkeen auziak SPKLaren 191. artikuluan eta APKLEOaren 97. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera ebatziko dituzte, kontratistari entzunaldia eman ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek, eta haien erabakiak berehala egikaritu beharko dira.

10.- Pertsona interesdun batek eskatuta hasitako prozeduretan, ez badago berariaz beste ezer ezarrita, eta haien xedea bada zenbatekoak erreklamatzea, eskumen administratiboak erabiltzea edo kontratu administratibo bat egikaritzeari, betetzeari edo iraungitzeari buruzko beste edozein gai, pertsona interesdunak eskaera ezetsitakotzat jo ahal izango du ebazteko epea igaro eta jakinarazpenik jaso ez badu, isiltasun administratiboagatik, ebazteko betebeharrak jarraituko duen arren.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

12.- Errekurtso araubidea

1.- Agiri hau eta preskripzio teknikoena errekurritu egin ahal izango dira, aukeran, SPKLaren 44. artikuluan aurreikusitako kontratazio alorreko errekurtso bereziaren bidez, kontratuaren balio zenbatetsia hiru milioi eurotik gorakoa bada.

2.- Honako jarduketa hauek ere berdin errekurritu ahal izango dira:

a) Lizitazio iragarkiak eta kontratazioa arautzeko baldintzak ezartzen dituzten gainerako kontratu dokumentuak.

b) Adjudikazio prozeduran egindako tramite egintzak, horiek adjudikazioan zuzenean edo zeharka eragina badute, prozedura jarraitzea ezinezko egiten badute, eta babesgabetasuna edo eskubide eta interes legitimoen kalte konponezina badakarte. Edozein kasutan, aurreko inguruabarrak gertatutakotzat joko dira kontratazio organoaren edo mahaiaren egintzetan, hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen dutenetan, SPKLaren 149. artikulua aplikatzearen ondorioz normala baino baxuegiak direlako baztertutako eskaintzak barne.

c) Adjudikazio erabakiak.

d) SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, horietarako beste adjudikazio bat egin behar zela uste izateagatik.

SPKLaren 51. artikuluan xedatutakoari jarraituz, errekurtsoa kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegian, edo 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4. artikuluan ezarritako lekuetan, 15 egun balioduneko epean, SPKLaren 50. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, errekurtsoa bat datorrenean SPKLaren 39. artikuluaren 2. apartatuko c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako baliogabetasun kausaren batekin, SPKLaren 50.2. artikuluan aurreikusitako aurkezteko epeei jarraituko zaie.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da, 29/1998 Legean, uztailaren 13koan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzkoan, aurreikusitako baldintzetan, EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hileko epean.

3.- Gainerako kontratuetan ohiko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzkoan, edo sektore publikoaren araubide juridikoari buruz indarrean dagoen araudian, aurreikusitakoak, baita 29/1998 Legean, uztailaren 13koan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenean ere.

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta tramitazioaren bidez egingo da.

Aldaerak onartzen badira, lizitazioak horiek aurkeztu ahal izango dituzte, ezaugarrien taularen 11. atalean ezarritako moduan, preskripzio tekniko berezien agirian ezarritako eta atal horretan laburtutako betekizunekin, modalitateekin eta ezaugarriekin.

2.- Ezaugarrien taularen buruan espedientea premiaz tramitatu behar dela zehazten bada, lizitatzeko, adjudikatzeko eta formalizatzeko epeak murriztuko dira, SPKLaren 119. artikuluan eta baterakoetan ezarritako arauei jarraituz.

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute aritzeko gaitasun osoa duten pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek zein atzerrikoek, ez badute kontratatzeko debekurik, eta haien kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala frogatzen badute, edo, SPKLak hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Araudi aplikagarriak hala xedatzen duelako lizitatzaileari bere antolakuntzari, etekinen helburuari, finantzatzeko sistemari edo beste gai batzuei buruzko betekizun jakin batzuk eskatzen zaizkionean dagokion adjudikazio prozeduran parte hartzeko, horiek frogatu beharko ditu bertan parte hartzeko.

2.- Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debeku ezari buruzko inguruabarrak, aurreko atalak aipatutakoak, eskaintzak aurkezteko azken datakoak izan beharko dira, eta halaxe mantendu beharko dira kontratua bete arte.

3.- Lizitatzaileek, gainera, kasu bakoitzean kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuak emateko galdagarria den gaitasun enpresaria edo profesionala izango dute.

4.- Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodunak izan ahalko dira soilik kontratuetako zerbitzuak haien berezko helburuen, xedearen edo jarduera esparruaren barruan badaude, haien estatutuen edo fundazio arauen arabera.

5.- Administrazioak, gainera, aldi baterako kontratazio horretarako osatutako enpresa elkarteak kontratatu ahal izango ditu, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea, kontratua haien alde adjudikatu arte.

Osaera aldatzen bada, edo kontratua formalizatu aurretik eta horren ondoren gertatutako aldaketarik badago, SPKLaren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio. Ondore horietarako, kontratazio organoari komunikatu beharko zaio gertatutako inguruabar hori.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten Estatuetako enpresei eta Europar Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLaren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

7.- SPKLaren 70.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, agiri honen xede den kontratua ezingo zaie adjudikatu lizitazioaren xede diren obrak zaintzeko, gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko zerbitzu kontratuen enpresa adjudikaziodun berberei, ezta haiei lotutakoei ere. Lotutakotzat joko dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuren batean daudenak.

15.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLaren 106. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, salbuespen modura, interes publikoagatik eta espedientean behar bezala justifikatuta, kontratu honetarako behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, zenbatekoa izango da ezaugarrien taularen 16. atalean adierazitakoa.

2.- Bermeen formari eta betekizunei dagokienez, SPKLaren 106.3. eta 108.1. artikuluetan jasotakoari jarraituko zaio, baita APKLEOaren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan xedatutakoari ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da kontratua amaitu eta berehala, eta lizitatzaileei itzuliko zaie.

16.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoaren plataformaren bidez aurkeztuko dira (www.contratacion.euskadi.eus) 33. atalean adierazitako epean, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean edo lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, arau harmonizatuaren mendeko kontratuetarako.

2.- Dokumentazioa, jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, agiri honen I. eranskinari jarraituko zaio.I

3.- Dokumentuak izendatzeko, kontuan hartuko dira agiri honen 19., 20. eta 21. klausuletan BAT, BI eta HIRU artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu moduan adierazitako atalak.

4.- Proposamenak sekretuak izango dira, eta, horretarako, izaera hori bermatuko duten bitartekoak arbitratuko dira, lizitazio publikoaren unera arte.

17.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- SPKLaren 138.3. artikuluak aipatutako informazio gehigarri edo osagarria eman behar denean, administrazio kontratatzaileak hori eman beharko du, eskaintzak aurkezteko ezarritako epemuga baino 6 egun lehenago, beranduenez, baldin eta eskaera gutxienez data hori baino 12 egun natural lehenago aurkeztu bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taularen 1. atalean jasotako posta elektronikoan egingo da.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2.- Premiazkotzat jotako espedienteetan, epea gehienez ere 4 egun naturalekoa izango da, arau harmonizatuaren mendeko kontratuetarako eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatzeko.

3.- Argipenak dagokion kontratatzailearen profilean argitaratzen diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

18.- Proposamenen edukia

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adieraziko diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo haren ordezkari batek.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzaren barruan, fitxategi independente batean, edukia zein den adieraziko da, zenbakiz (APKLEO, 80.1. artikulua).

3.- Pertsona fisikoen datuak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazi zaie beren datu pertsonalak, hala badagokio, beren eskaintza eta kontratazioa egiteko behar den gainerako dokumentazioa aurkeztuta jasotzen direnean, Gipuzkoako Foru Aldundiak tratatuko dituela, kontratuaren garapenari behar bezala eusten zaiola, betetzen dela eta kontrolatzen dela bermatzeko, eta "Kontratazio-espedientea" izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Era berean, DBEOren 13. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten da:

a) Gobernantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoa da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (Gipuzkoa plaza z.g.).
b) Datuen Babeseko ordezkariarekin harremanetan jar daiteke helbide elektroniko honetan: dbo@gipuzkoa.eus.
c) Ematen diren datu pertsonalak beharrezkoak dira kontratazio-espedienteak izapidetzeko eta kudeatzeko, departamentuaren eskumenen esparruan.
d) Tratamendua legezkoa da, izan ere, beharrezkoa da interesdunak parte hartzen duen kontratu bat gauzatzeko, edo, interesdunak hala eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko, bai eta interes publikoan egindako misio bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak betetzeko ere, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluaren arabera.
e) Ez dago aurreikusita hirugarrenei lagatzea edo jakinaraztea, salbu eta legez ezarritako betebeharrak aplikatzen badira eta tratamendu honen eremuan aplikatzekoak badira (organo fiskalizatzaileak, beste interesdun batzuk).
f) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea eta eramangarritasun-eskubidea erabil daitezke, bai eta datuak tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakien xede ez izateko eskubidea ere.
g) Ematen zaizkigun datu pertsonalak gordeko dira soil-soilik horien bilketa eragin duen xedeetarako, eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen ardura posibleak zehazteko.

Informazio gehiago hemen: http://www.gipuzkoa.eus/eu/pribatutasuna

19.- BAT zenbakiko fitxategi elektronikoa: "AURREKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

1.- "AURREKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA" izeneko fitxategi elektronikoan sartu beharko dira jarraian zerrendatutako dokumentuak, baita horien aurkibidea ere.

a) **Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak**, **I. eranskinaren** Gehigarrian jasotako ereduaren araberakoa.

b) **Kontratazio agiri europar bakarra (KAEB)** SPKLaren 140. eta 141. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharrekoa, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatutakoa, bertan jasotako formulario ereduaren araberakoa.

   Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena baliatzen badu, bakoitzaren KAEBa aurkeztu beharko da.

   Ezaugarrien taulan aurreikusten bada kontratuaren xedea lotetan banatzea, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala batetik bestera aldatuz gero,

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

kaudimen betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote talde bakoitzeko KAEB bat aurkeztuko da.

c) **Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarte bat osatzeko konpromisoa.** Bi enpresa edo gehiago aldi baterako elkarte bat osatuz aurkezten direnean lizitazio batera, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, hura osatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta adjudikaziodun izatekotan formalki aldi baterako enpresen elkarte bat osatzeko konpromisoa jasoko duena. (SPKLaren 69. eta APKLEOaren 24. artikulua). Aipatutako dokumentua elkartea osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere KAEBa aurkeztu beharko du. Agiri honen III. eranskinean jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea osatzeko konpromisoaren eredua.

d) **Bitarteko pertsonal eta materialak kontratua egikaritzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena**, ezaugarrien taularen 14. atalean adierazitako profilekin eta zehaztapenekin. Agiri honen IV. eranskinean eredu bat jasota dago.

e) **Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, bere enpresa taldeari buruzkoa**, talde beraren parte diren sozietate guztiak jasotzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako baldintzetan. Inongo enpresa talderen parte ez bada, adierazpenak hori esango du. Agiri honen V. eranskinean eredu bat jasota dago.

f) **Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio publikoari aplikagarri zaion jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzearen inguruko erantzukizunpeko adierazpena.** Adierazpen horrek jarraitu egin beharko dio agiri honen VI. eranskinean atxikitako ereduari.

g) **Lizitatzailearen dokumentu eta datu konfidentzialen adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala badagokie, adierazi beharko dute zein dokumentu administratibo eta tekniko eta aurkeztutako zein datu diren, haien ustez, konfidentzialtzat jotzekoak. Inguruabar hori dokumentuan bertan adierazi beharko da (gainetik inprimatuta, marjinan edo beste nolabait). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta horiek hirugarren pertsonei edo erakundeei hedatzea kaltegarria izan badaiteke bere merkataritza interes zilegientzat, edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu badezake. Adierazpen hori betetzen ez bada, dokumentu edo datu bat bera ere ez da konfidentzialtzat joko. Agiri honen VII. eranskinean eredu bat jasota dago.

h) **Behin-behineko bermearen ziurtagiria, hala badagokio.** Behin-behineko bermea eskatu bada, honela jarriko da:

- Banku kontuen nazioarteko kodea ES71 2095 0611 09 1062462774 duen kontuan, eskudirutan egindako bermeak direnean. Orduan, gordailu hori egin izana frogatzen duen egiaztagiria atxiki beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, balore idatziak ibilgetzearen egiaztagiriak, abalak edo kauzio aseguruak direnean (ikus abal eredua, VIII. eranskinean).

Aldi baterako enpresen elkarteen kasuan, behin-behineko bermea parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek osatu ahal izango dute, baldin eta batera ezaugarrien taularen 16. atalean eskatutako zenbatekora iristen bada, eta solidarioki aldi baterako elkartea osatzen duten guztientzako bada.

i) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak** Atzerriko lizitatzaile guztiek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, berariaz **dioena Espainiako edozein mailako epaitegien eta epaimahaien jurisdikzioaren mendean egongo direla** kontratutik zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen intzidentzia guztientzat, eta uko egiten diotela, hala badagokio, lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLaren 140.1. f artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarraren akordioa sinatu ez duten estatuetako enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren egoitza dagoen lekuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Kontsul Bulegoaren **txosten bat**, adierazten duena, enpresak egiaztatu ondoren, inskribatuta dagoela tokiko erregistro profesionalean, merkataritzakoan edo baliokidean, edo, bestela, jardun ohi duela tokiko trafikoan kontratuaren xede diren jardueren alorrean.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

- SPKLaren 68. artikuluak aipatutako **elkarrekikotasun txostena**, salbu eta arau harmonizatuaren mendeko kontratuak badira. Kasu horretan, Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Atzerriko Merkataritzaren Idazkaritza Nagusiaren txosten batek ordezkatuko du, Estatuaren Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren sinatzaile izaeraren ingurukoak.
- Ezaugarrien taularen 31. atalak hori eskatzen badu, obra kontratuen adjudikaziodun diren Europar Batasunetik kanpoko enpresek Espainian egoitza bat ireki beharko dute, beren eragiketetarako ahalordedunak edo ordezkariak izendatu beharko dituzte eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du.

2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango dute dokumentuz justifikatzeko lizitatzaileek erantzukizunpeko adierazpenean betetzen dituztela adierazitako baldintzak betetzen dituztela.

Lizitatzaileak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du epe nahikoan, 5 egun baliodunekoan, gehienez ere, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela, eta prozeduratik kanpo utziko da.

20.- BI zenbakiko fitxategi elektronikoa: "BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Ezaugarrien taularen 17. atalean balio judizioz balioetsi beharreko adjudikazio irizpideak jaso badira, aurretiaz ebaluatu beharrekoak, lizitatzaileak fitxategi elektroniko bat aurkeztu beharko du, BI zenbakia duena, "BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenburuarekin, eta bertan jaso beharko du eskatutako dokumentazioa.

2.- Inola ere ez da fitxategi elektroniko horretan sartu behar HIRU zenbakia duen gutun azalari edo fitxategi elektronikoari dagokion informaziorik

3.- Halaber, lizitatzaileak beste edozein dokumentu aurkeztu beharko du, hala badagokio, proiektuan berariaz adierazitakoak eta balio dutenak eskaintzak eskatutako zehaztasun teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko, baina balioetsiko ez direnak. BI zenbakiko fitxategi elektronikoan sartuko dira fitxategi hori nahitaez aurkeztu behar bada, edo, bestela, HIRU fitxategi elektronikoan.

21.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoa: "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Fitxategi elektroniko honetan, "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenburua duenean, sartu beharko dira eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak.

2.- Proposamenek jarraitu egin beharko diote IX. eranskinean jasotako ereduari, eta ez dira onartuko eskaintza onartzeko Administrazioak funtsezkotzat jotakoa ondo ezagutzea uzten ez duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek partida independente moduan adierazi beharko dute balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa, hura jasanarazi behar bada.

Eskaintza ekonomikoak eta fitxategi elektroniko horretan jasotako gainerako dokumentazioa ezaugarrien taularen 17. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

3.- Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredutik oso ezberdina bada edo akats nabarmenen bat badu proposamenaren zenbatekoan, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu hura bideraezin bihurtzen duen akatsen edo ahultasunen bat duela, kontratazio mahaiak atzera botako du, arrazoitutako ebazpen baten bidez. Aitzitik, ereduan hitz batzuk aldatu edo kendu izana ez da nahikoa izango proposamena atzera botatzeko, batak zein besteak zentzua aldatzen ez badio.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina kontuan hartuta SPKLaren 142. artikuluan beste aukeren onargarritasunaren inguruan xedatzen duena. Lizitatzaile batek ezingo du aldi baterako enpresa elkarte baten parte moduan proposamenik aurkeztu banaka egin badu edo aldi baterako enpresen elkarte batean baino gehiagotan badago. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako proposamen guztiak ezetsiko dira.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

5.- Proposamena aldi baterako enpresa elkarte batek egiten badu, hura osatzen duten guztiek sinatu beharko dute proposamena, dela zuzenean dela ordezkari baten bidez.

6.- Ezaugarrien taularen 11. atalak aldaerak aurkezteko baimena ematen badu, fitxategi horrek eskaintza ekonomiko bat izan ahalko du aldaera bakoitzeko, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa ere agiri honen IX. eranskinean jasotako ereduaren arabera egingo da, eta atal horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

22.- Aldaerak onartzea

1.- Aldaerak onartzen badira, lizitatzaileak aurkeztutako proposamen bakarrak kontratuaren xedeari lotuta egoki iruditu bezainbeste irtenbide jaso ahal izango ditu, preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin. Horiek ezaugarrien taularen 11. atalean daude laburtuta. Aldaerak ezaugarrien taularen atal berberean ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute gainditu kontratuaren oinarrizko aurrekontua.

2.- Kasu guztietan, nahitaezkoa izango da lizitatzaileentzat eskatutako behin betiko onartutako proiektuari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat egitea, zerbitzua egikaritzeko epea jasoko duena, eta prezioa ezaugarrien taulan jasotakoa bezalakoa edo txikiagoa bi kasuetan. Bat etorri beharko dira aurkeztutako lan programan islatutakoekin.

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

2.- Proposamenak aurkeztean, enpresa lizitatzaileak onartutakotzat jotzen dira, baldintzarik gabe, agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta ulertzen da kontratazio mahaia eta organoari baimena ematen zaiola Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Agiriei jarraitu ezean, eskaintza baztertu egingo da ezinbestean.

2.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena erretiratu 15 eguneko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu badira, SPKLaren 158.4. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epe hori 15 egun baliodunetan handituko da, beharrezkoa denean SPKLaren 149. artikuluak, normala baino baxuagoak diren eskaintzei buruzkoak, adierazitako tramiteak egitea.

3.- Proposamen bat behar ez den moduan erretiratzen bada, lizitatzaileari horrek eragotzi egingo dio Administrazio Publikoekin kontratuak egitea, SPKLaren 71.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz; horrez gain, konfiskatu egingo da behin-behineko bermea, SPKLaren 106.1. artikuluari jarraituz, hura eskatu bada.

24.- Kontratazio mahaia

1.- Kontratazio mahaia izango da eskaintzak balioesteko organo tekniko eskuduna, eta SPKLaren 326. artikuluan aurreikusitako moduan jardungo du, 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, haren osaera eta funtzioak zehazten dituenaren, 21. eta 22. artikuluek xedatutako moduan.

2.- Ezaugarrien taularen 32. atalean jasota dago bere osaera, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio iragarkiarekin, edo, bestela, osatu aurretik, aipatutako profileko iragarki espezifiko baten bidez.

3.- Hutsen, gaixotasunen edo absentziaren bat badago justifikatutako kausaren bategatik, honako ordezkapen araubidea ezarri da kontratazio mahaiko kideentzat:

- Presidentzia: titularra mahaikideek ordeztuko dute, agiri honen ezaugarrien taulan edo kontratatzailearen profilean adierazitako hurrenkera berberean.
- Mahaikideak: mahaikideak, oro har, titularrak atxikitako zerbitzuei edo kudeaketa unitateei atxikitako langile funtzionarioek ordeztuko dituzte edo, bestela, haren gaineko zuzendaritzaren beste zerbitzu batzuetakoek, eta mahaiko presidenteak izendatuko ditu. Deskribatutako moduan ordeztea ezinezkoa bada, mahaikideak departamentuaren

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

kudeaketa zerbitzuetara atxikitako funtzionarioek ordeztuko dituzte, mahaiburutza duenak izendatutakoek.

- Kontu Hartzailetza eta Auditoretza zerbitzuari atxikitako mahaikidea zerbitzu horretako funtzionario batek ordeztuko du.
- Idazkaria: kontratua kudeatzen duen departamentuari atxikitako funtzionario batek ordeztuko du, eta mahaiko presidenteak izendatuko du.

25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea

25.1.- BAT zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta dokumentazio administratiboaren kalifikazioa

1.- Behin proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek garaiz eta modu egokian, BAT zenbakiko fitxategi elektronikoan, aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak edo omisioak topatzen baditu, alderdi interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzentzeko edo konpontzeko. Era berean, mahaiak lizitatzaileei eskatu diezaieke dokumentazio osagarria edo aurkeztutakoa argitzekoa aurkezteko, eta horretarako 5 egun naturaleko epea emango die.

2.- Interesdunekin komunikazioa bitarteko elektronikoen bidez egingo da.

3.- Azkenik, kontratazio mahaiak zehaztuko du zein lizitatzaile onartu dituen lizitazioan, zeintzuk utzi dituen kanpo eta zergatik.

25.2.- BI zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BI fitxategi elektronikoa dagoenean soilik)

1.- Nahitaez aurkeztu behar bada, BI zenbakiko fitxategi elektronikoak irekiko dira, “BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenekoak, haien edukia ezaugarrien taularen 17. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatzeko.

2.- Ekitaldi hori hasiko da mahaiak egindako proposamenen kalifikazioaren adierazpen berariazko batekin, lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta horiek baztertzeko arrazoiak identifikatu dituenarekin.

3.- Lizitazio prozeduratik kanpo geldituko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak, eta BI zenbakiko fitxategi elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu beharreko informazioa sartzen dutenak (HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoa).

25.3.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoak ekitaldi publiko batean irekiko dira, oro har, eta zuzenean jarraitu ahal izango da, kontratatzailearen profilean deialdian adierazten den loturaren bidez.

2.- HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoak irekitzeko ekitaldi publiko hori hasiko da, BI zenbakiko fitxategi elektronikorik ez dagoenean, mahaiak egindako proposamenen kalifikazioaren adierazpen berariazko batekin, lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta horiek baztertzeko arrazoiak identifikatu dituenarekin.

3.- Balio judizioz balioetsi beharreko ebaluazio irizpideak badaude, horien emaitza ekitaldi horretan ezagutaraziko da.

4.- Jarraian, kontratazio mahaiak onartutako lizitatzaileen HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoak irekiko ditu, “ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

5.- Fitxategi elektroniko horietan jasotako gainerako dokumentazioa ezaugarrien taularen 17. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

6.- Edozein kasutan, irizpide horiek beti ebaluatuko dira BI zenbakia duten fitxategi elektronikoen jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren.

25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko paragrafoen arabera egindako guztia jasota utziko da dagozkion aktetan, eta bertan islatuko dira prozeduraren emaitza eta intzidentziak.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzaren publizitatea eta ukitutako lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Indarrean dagoen legediari jarraituz, argitaratu behar ez den informazioa ez da argitaratuko. Hori guztia egingo da ukitutako lizitatzaileei egin beharreko komunikazioa edo jakinarazpena eginda.

2.- Lizitatzaile bat kanpoan utzi dela ekitaldi publiko horretan bertan jakinaraziko zaio, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduren bidez.

3.- Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena baztertutzat joko da jakinarazpena eskuragarri jarri eta 10 egun naturalera edukira sartu ez bada; eta jakinarazpen betebeharra betetzat joko da jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri jarritakoan.

27.- Adjudikazio irizpideak

1.- Kontuan hartu beharreko irizpideak eta kontratua adjudikatzeko horiek haztatzea, oinarrizko eskaintzan eta aldaeretan edo hobekuntzetan aplikagarriak direnak, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taularen 17. atalean ezarritakoak izango dira.

2.- Ezaugarrien taularen 17. atalean adierazitako ezaugarri formalak, testu idatziaren paperaren tamainari, marjinei, letra motari eta lerroarteari dagozkionak (grafikoak, argazkiak, diagramak eta abar gorabehera) betetzen ez dituzten eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eskatuko zaie beren eskaintzaren forma zuzentzeko, haren eduki materiala aldatu gabe. Eduki hori aldatuz gero, prozeduratik kanporatuko da zuzenean.

Eskaera egin eta informaltasunari eutsiz gero, ez da baloratuko dagokion adjudikazio irizpideari dagokionez, baina horri jarraitu ez izanak inola ere ez du adjudikazio prozesutik kanporatuko.

3.- Ezaugarri formal horiei jarraitu arren 17. atalean zehaztutako adjudikazio irizpide bakoitzarekin lotutako atal bakoitzaren gehieneko luzera (azalak eta indizeak kontuan hartu gabe) baino handiagoa duten proposamenak inola ere ez dira prozesutik kanporatuko. Aipatutako gehieneko luzera hori gainditu gero, edukia balioetsiko da, baimendutako gehieneko orrialde kopurura arte.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa, enpresa horren proposamena ez da balioetsiko dena delako irizpideari dagokionez.

28.- Eskaintzak baloratzea

1.- Bere funtzioak betetzeko, mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izanago ditu, SPKLaren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

2.- Eskatutako preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo ditu kontratazio mahaiak.

3.- Balio judizio baten bidez balioetsi beharreko irizpideek guztizko haztapenaren % 50 gainditzen dutenean, BI fitxategi elektronikoaren aurreko ebaluazioa prestakuntza egokia duten adituek osatutako batzorde batek egingo du, berariaz ezaugarrien taularen 17. atalean berariaz jasotakoak eta kontratatzailearen profilean argitaratutakoak. Atal honetan jasoko dira adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak balioetsi beharreko irizpide zehatzak, horiek balioespena egiteko epea eta hura kuantifikatzeko gehieneko eta gutxieneko mugak.

4.- SPKLaren 147.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratuaren adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainba eskaintzaren arteko berdinketa badago, hura desegiteko hurrengo paragrafoan adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira, hurrenkera horretan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unean adierazitakoak.

5.- Adjudikazioan lehentasuna izango dute araudiak ezarritakoa baino desgaitasun handiko langile kopuru handiagoa duten enpresak, baldin eta proposamen horien baldintzek besteak gainditu egiten badituzte adjudikazioaren oinarri diren irizpideen ikuspegitik. Proposamen abantailatsuenean berdindutako hainbat enpresa lizitatzailek egiaztatzen badute desgaitasuna duten pertsonekin lan harremana dutela araudiak ezarritakoa baino ehuneko handiagoan, lehentasuna izango du kontratua adjudikatzean plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiagoa duen lizitatzaileak. Berdinketa desegin ez bada, prezio baxueneko proposamena egin duen enpresa hautatuko da, baina biek prezio berbera badute, adjudikazioa zozketa eginez egingo da.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek frogatu egin beharko dute inguruabar hori, dagozkien lan kontratuen eta Gizarte Segurantzaren kotizazio dokumentuen bidez, baita zuzenbideak aurretik aipatutako irizpide sozialak egiaztatzeko onartutako beste edozein dokumenturen bitartez ere.

29.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango dizkiote aurkeztutako eskaintzak argitzeko edo haien idazkeran dauden ageriko akats materialak zuzentzeko, baldin eta tratu berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada. Inola ere ezingo dira aldatu eskaintzen baldintzak. Egindako guztia dokumentuz jasota gelditu behar da espedientean.

30.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak

1.- Kontratazio organoak paramatro objektiboak ezarriko ditu ezaugarri koadroaren 17. atalean, zeinen arabera ulertuko baita proposamena ezin dela bete ezohiko moduan baxua delako.

2.- Formulak aplikatuz automatikoki balora daitezkeen eskaintzen artxibo elektronikoak ireki ondoren, baldintza-agiri honetan ezarritako parametro objektiboak aplikatuko dira, eta, parametro horien arabera, ustez anormaltasuna duten eskaintzak identifikatuko dira. 2.- Anormaltasun presuntziopean egon daitezkeen proposamen batzuk identifikatzen direnean, kontratazio mahaiak –edo, bestela, kontratazio organoak– lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza ez-ohiko edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak modu arrazoituan eta zehatzean justifikatzeko eta xehakatzeko. Horrela, SPKLren 149. artikuluko 4tik 6ra bitarteko apartatuetan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

3. Kontratazio-organoak, enpresa lizitatzaileak egindako justifikazioa eta, hala badagokio, eskatutako txostenak kontuan hartuta, uste badu bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua, eta, beraz, eskaintza ezin bada bete balio anormalak sartzearen ondorioz, proposamena baztertu egingo da.

31.- Prozedurako ondorengotza

1.- Prozedura tramitatu bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresak bateratu edo banatu egingo balira, edo enpresa ondarea edo jardueraren adar bat eskualdatuko balute, prozeduran enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren ondorengoa izango da sozietate xurgatzailea, bateratzetik sortutakoa, banatzearen onuraduna edo enpresa ondarea edo dagokion jarduera adarra eskuratu duena, baldin eta betetzen baditu gaitasun baldintzak eta kontratatzeko debeku eza, eta frogatzen badu baduela beharrezko kaudimena eta sailkapena, klausula administratibo berezien agirian jasotakoak, adjudikazio prozeduran parte hartzeko beharrezkoak.

2.- Aurreko atalean adierazitako eragiketak enpresa elkarteenak badira, SPKLaren 69. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

32.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Administrazioak atzera egitea

1.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko eta adjudikazio prozedura bere horretan uztea, SPKLaren 152. artikuluan jasotako baldintzetan, kontratazio organoak soilik erabaki ahal izango du, formalizatu aurretik, eta lizitatzaileei jakinarazi beharko die. Europako Batzordeari ere jakinaraziko zaio kontratua Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu bada.

2.- Bi kasuetan, hautagai edo lizitatzaile gaiei konpentsazio bat emango zaie, hala badagokio agiri honen ezaugarrien taularen 25. atalak adierazitako zenbatekokoa.

33.- Adjudikazioa

33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio proposamena

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio mahaiak kontratazio organoari aktarekin batera bidaliko dio dagokion balioespena, onartutako proposamenen sailkapena eta adjudikazio proposamena. Bertan, goitik behera antolatuko dira eskaintzak, eta bakoitzari ezaugarrien taularen 17. atalean adierazitako irizpideak

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

aplikatuz emandako puntuazioa azalduko da. Horrez gain, kalitate-prezio erlazio onena aurkeztu duena identifikatuko da.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde; izan ere, ez du horrelakorik eskuratuko Administrazioari dagokionez kontratua formalizatu arte.

Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza hoberentzat joko da prezio baxuena duena.

33.2. Prezio-kalitate erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurreko betekizunak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea eta adjudikazio proposamena

1.- Behin kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartu duenean, dagozkion zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote aurkezteko kontratua adjudikatzeko zerrendatutako beharrezko dokumentazioa, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta 10 egun balioduneko epean.

Honako hau izango da dokumentazioa:

a) **Aritzeko gaitasuna eta jarduera esparrua egiaztatzen duten dokumentuak**.

1.-Enpresa pertsona juridiko bat bada, aritzeko gaitasuna egiaztatuko da eratze edo eraldatze eskritura aurkeztuz, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa, betekizun hori galdagarria bada aplikagarria den merkataritzako legediaren arabera. Betekizun hori galdagarria ez bada, aritzeko gaitasuna egiaztatuko da eratzeko eskritura edo dokumentuaren, estatutuen edo fundazio aktaren bidez, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituenean, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatutakoan.

Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodunak izan ahalko dira soilik kontratuetako zerbitzuak haien berezko helburuen, xedearen edo jarduera esparruaren barruan badaude, haien estatutuen edo fundazio arauen arabera. Hori aurkeztutako dokumentazioan frogatuta gelditu beharko da.

Enpresa banakakoa bada, nortasun agiria aurkeztu beharko da, edo, bestela, horren funtzioa betetzen duen dokumentua.

2.- Enpresa kontratistaren eta azpikontratisten titulartasun errealaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuak definitzen duen zentzuan, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluarekin lotuta, HFP 1030/2021 Aginduaren 4.b) eranskinaren arabera.

b) **Hala badagokio, ordezkaritza frogatzen duten dokumentuak.** Beste pertsona baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako nahikoa den ahalordea ere.

Ordezkariak ez badu NANik, notario batek zilegiztatutako edo organo administratibo eskudunak konpultsatutako fotokopia bat aurkeztu beharko du, arauz hura ordezten duen dokumentuarena.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan jasota egon beharko du. Dena den, ekintza jakin baterako ahalorde bat bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ez da beharrezkoa izango ordezkatzeko ahalmena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea ordezkaritza hori Gipuzkoako Foru Aldundian inskribatuta badago, dela legezko ordezkarien erroldan dela tramite honetarako besteko botereko borondatezko ordezkaritzaren errolda korporatiboan.

c) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala.** Eskatutako sailkapenaren edo, bestela. kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko eta profesionalaren egiaztagiria, SPKLaren 87. eta 88. artikuluetan aurreikusitako eta lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taularen 13. atalean bitartekoren baten bidez.

Enpresa sailkatzeko zain dagoen kasuetan, horretarako dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du, eta justifikatu egin beharko du zein sailkapen duen dokumentuetan akatsak edo omisioak konpontzeko aurreikusitako epean.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Aldi baterako enpresa elkarteetan, haien kaudimena zehazteko, hura osatzen duen enpresa guztien ezaugarriak pilatuko dira (APKLEOaren 24.1. artikulua).

Espainiakoak ez diren lizitatzaileak, Europar Batasuneko kidea den Estatu batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren akordioa sinatu duen Estatu batekoak badira, Espainian sailkatuta ez badaude, sailkapen horren ordez aurkeztu beharko dute bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLaren 97. edo 86., 87. eta 88. artikuluetan xedatutako moduan.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko Estatu kideek ezarritako kontratatzeko baimena duten enpresarien zerrenda ofizialak emateko organo eskudunek igorritako inskripzio egiaztagiriak, egiaztagiria igortzen duen Estatu kidean ezarritako enpresarien ingurukoak, aurkeztuz gero, gaitasuna aitortuko zaie bertan jasotako hautaketa kualitatiboaren irizpideei dagokienez.

Eragin berbera izango dute, bertan jasotako ezaugarriei dagokienez, Europako egiaztatze arauei jarraitzen dieten egiaztatze organo eskudunek emandako egiaztagiriek, lizitatzailea ezarrita dagoen Estatu kideko legediaren arabera igorri badira.

Aurreko atalak aipatutako dokumentuetan jasota egon beharko da zein erreferentziak eman duten aukera enpresaria egiaztapenaren zerrendan edo igorpenean inskribatzeko, baita jaso duen klasifikazioa ere.

d) **Kontratuaren xede den zerbitzua emateko gaitasun enpresariala edo profesionala egiaztatzea.** Kontratatzeko gaitasun baldintza moduan legez galdagarria bada, dokumentazioa aurkeztu beharko da egiaztatzeko dagokion gaikuntza enpresariala edo profesionala duela kontratu honen xede den zerbitzua emateko.

e) **Egiaz bitarteko pertsonal eta materialak,** ezaugarrien taularen 14. atalean adierazitako profilak eta zehaztapenak dituztenak, **dituela justifikatzen duen dokumentazioa** aurkeztea.

f) **Kanpoko bitartekoen bidez kaudimena egiaztatzea** (SPKLaren 75. artikulua). Frogatu beharko du kontratua egikaritzeko egiaz dituela giza bitarteko eta bitarteko material horiek, kanpoko erakunde horiek idatziz egindako konpromisoa aurkeztuz.

Lizitatzaileak kontratua egikarituko du kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berberekin. Horiek soilik ordeztu ahal izango ditu aurreikusi ezin daitezkeen kausak tarteko, kaudimen baliokidea dakarten beste bitarteko batzuekin, Administrazioaren baimena badu.

g) **Ingurumenaren kudeaketaren inguruko arauak eta kalitatea bermatzekoak betetzearen egiaztagiriak**. Ezaugarrien taularen 13. atalean aurreikusi bada, eta bertan adierazitakoari jarraituz.

h) **Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzeko frogagiriak**. Kontratazio-organoaren unitate kudeatzaileek, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako plataformen bidez, enpresa lizitatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak eskatuko dituzte.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio-mahaiak dokumentu horiek aurkezteko eskatu ahal izango du.

i) **Berdintasun plan bat baduela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 50 langile edo gehiagoko enpresa denean, eta dagokion lan-erregistroan inskribatu beharko dute.

j) **Langile desgaituen kopuruari buruzko frogagiriak.** 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren beharrean har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, zein horren garapenerako araudiak, aurreikusten dutenarekin bat.

k) **Jarduera ekonomikoen gaineko zergari atxikitako jarduerak egiten direnean:** dagokion ekitaldiko akta, edo azken ziurtagiria, aipatutako zergaren matrikulatik baja eman ez izanaren

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

erantzukizunpeko adierazpena eta, hala badagokio, salbuetsita egotearen inguruko erantzukizunpeko adierazpena.

Baldin eta enpresa lizitatzaileek berariazko baimena eman badute Administrazio honek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko datuak eskuratzeko, kontratazio-organoaren unitate kudeatzaileek, eskura dauden datu-bitartekaritzako plataformen bidez, kasuan kasuko ogasunek eman beharreko ziurtagiriak jasoko dituzte.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio-mahaiak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

l) **Behin betiko** bermea osatzea, hala badagokio. Honela egin ahal izango da:

- Banku kontuen nazioarteko kodea ES71 2095 0611 09 1062462774 duen kontuan, eskudirutan egindako bermeak direnean. Orduan, gordailu hori egin izana frogatzen duen egiaztagiria atxiki beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, balore idatziak ibilgetzearen egiaztagiriak, abalak edo kauzio aseguruak direnean (ikus abal eredua, VIII. eranskinean).

2.- Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzio ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsiko du erregistroan inskribatutako inguruabarrak justifikatzeko dokumentuak aurkeztetik, bertan islatutakoaren arabera eta kontrakoa frogatu ezean.

Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeko egiaztagiria aurkezteak SPKLaren 87.2. eta 96. artikuluetan eta 817/2009 Errege Dekretuaren, SPKL partzialki garatzen duenaren, 19. artikuluan aurreikusitako eraginak izango ditu.

Egiaztagiriekin batera aurkeztu beharko da erantzukizunpeko adierazpen bat, dioena egiaztagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean ez badago jasota egiaztatu behar duen betekizunetako bat ere, enpresak justifikatu egin beharko ditu, SPKLn aurreikusitako bitartekoren baten bidez.

Enpresa inskribatuta dagoenean Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kideren bateko datu base nazionalen batean jasota badago, enpresaren espediente birtual batean, edo dokumentuak biltegiratzeko sistema elektroniko batean edo aurrekalifikazio sistema batean, eta horiek aipatutako organoentzat sartzeko doakoak badira, ez dira nahitaez aurkeztu beharko aipatutako lekuetan inskribatutako egiaztagiriak edo inskribatutako datuen dokumentuzko froga. Lizitatzaileak soilik dagokion erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela adierazi beharko du berariaz.

3.- Ez bada behar bezala eta ezarritako epean aurkezten aurreko bi atalek adierazitako dokumentazioa, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, zehapen moduan. Lehenik behin-behineko bermeari kenduko zaio, halakorik eratu balitz.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkera berberean (SPKLaren 150.2. artikulua).

4.- Lizitatzaile batek, doloa, errua edo zabarkeria tarteko, klausula honetan ezarritakoa adierazitako epean betetzen ez badu, debekatu egingo zaio kontratatzea, SPKLaren 71.2.) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

33.3.- Behin betiko bermea

1.- SPKLaren 145. artikuluaren arabera eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu behar du, eta kontratazio organoaren esku utzi behar du. Zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren zenbatekoaren edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5 izango da, kontratua prezio unitarioen arabera egiten denean, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo. Hamar egun balioduneko epean frogatu beharko da berme hori eratu dela, SPKLaren 150.2. artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2.- Ezaugarrien taularen 16. atalean azaltzen den behin betiko bermea SPKLaren 108. artikuluan eta APKLEOaren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Betekizun horiek betetzen ez badira, enpresa adjudikaziodunari egotzi dakizkiokeen kausengatik, Administrazioak ez du haren aldeko adjudikaziorik egingo.

3.- Ezaugarrien taularen atal horrek hala aurreikusten badu, prezioa atxikiz eratu ahal izango da.

Prezioa atxikiz eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, berariazko baimena emanda, eta zenbatekoa lehen fakturatik eta hurrengoetatik kenduko da, zenbateko osora iritsi arte.

4.- Berme horren gainean kontratistari eskatu dakizkiokeen zehapenak edo kalte ordainak aplikatzen badira, hark dagokion zenbatekoan bete beharko du, egikaritu eta 15 egun naturaleko epean. Bestela, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

5.- Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz prezioa aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, adjudikaziodunari aldaketa egiteko erabakia jakinarazi eta 15 egun naturaleko epean, aldatutako prezioarekin proportzio egokia izan dezan.

6.- Edozein kasutan, behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluak aipatutako kontzeptuei jarraituko die. Kontzeptu horien barruan dago kontratistak kontratuaren xede diren zerbitzuak gaizki ematearen ondorioz hirugarrenei ekarritako kalteengatik eta galerengatik kalte ordainak emateko betebeharra, SPKLaren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

7.- Behin-behineko bermea eratu den kasuetan, adjudikaziodunak aukeran aplikatu ahal izango dio behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari, edo azken hori osorik eratu ahal izango du hutsetik.

8.- Berme osagarria SPKLaren 107.2. artikuluan xedatutakoaren arabera eratuko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taularen 16. atalean jasotakoari jarraituko dio.

33.4.- Adjudikazioa

1.- Kontratazio organoak kontratua adjudikatu egin beharko du 33.2. klausulak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egun baliodunetan.

Dena den, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioarena denean, adjudikazioa gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da, proposizioak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ezingo da lizitazio bat hutsa gelditu dela ulertu agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazio ebazpena arrazoituta egon beharko da, eta aldi berean enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko beharko da 15 eguneko epean.

3.- Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da adjudikazio ebazpenean, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4.- Aurreko 2. atalak adierazitako jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute adjudikazio prozesuan interesa duten pertsonek adjudikazio erabakiaren aurka behar bezala arrazoitutako errekurtso bat jarri ahal izan dezaten, bereziki, SPKLaren 151.2. artikuluan jasotako informazioa.

5.- Adjudikazioaren arrazoiketari SPKLaren 155.3. artikuluan jasotako konfidentzialtasunaren salbuespena aplikatuko zaio.

6.- Edozein kasutan, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den, SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egingo da, entzunaldi bidez.

34.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatu beharko da, eta hark lizitazioaren baldintzei zehatz-mehatz jarraitu beharko die. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango ditu eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Formalizatutako dokumentuan inola ere ezingo dira sartu adjudikazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2.- Kontratua formalizatzean perfekzionatzen da, eta inola ere ezingo da kontratua egikaritzen hasi aurretik formalizatu gabe. Alderdien sinadura elektronikoak data desberdinetan egin badira, kontratua azken datan burutu dela ulertuko da.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunaren ordezkariak honako hau aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean:

a) Haren nortasuna eta ordezkapena frogatzen duten dokumentuak.

b) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa elkarte bat bada, eratzeko eskritura publikoa, esleitutako IFZ eta behar besteko boterea duen ordezkariaren izendapena.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak igorritako egiaztagiria aurkeztu bada, adjudikaziodunak berretsi egin beharko du hura igortzeko inguruabarrak ez direla aldatu.

4.- Kontratuari kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu badakioke, formalizazioa ezingo da egin adjudikazio jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun baliodun igaro aurretik.

Kontratazio organoak adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro denean kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri gabe. Era berean, bidezkoa izango da errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etetea kendu badu.

5.- Gainerako kasuetan, kontratua 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

6.- Kontratua sinatzean, enpresa adjudikaziodunak memoria onartzen du hauei dagokienez: obra unitateen parte diren oinarrizko materialen deskribapena, planoak, preskripzio teknikoen agiriak eta proiektuaren aurrekontuaren prezio taulak, baita klausula administratiboen agiri hau ere. Dokumentu horiek guztiek kontratu izaera dute, eta, horrela, horiek ezagutzen direla eta horiekin ados dagoela jasota gelditukо da.

Berariaz jaso beharko dira kontratuaren edukian adjudikaziodunak bere proposamen teknikoan bere gain hartutako betebeharrak, alderdi sozialei eta ingurumenekoei buruzko irizpide moduan balioetsitako alderdien ingurukoak, 11/2014 Foru Arauaren, urriaren 29koaren, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoari buruzkoaren, 11.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

7.- Adjudikaziodunari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, zehapen modura. Hura lehenik behin betiko bermetik hartuko da, eratuta badago, baina, horrez gain, adjudikaziodunari kontratatzea debekatu dakioke, SPKLaren 71.2.b) artikuluari jarraituz.

8.- Ez formalizatzeko kausak Administrazioari egotzi badakizkioke, berandutzeek eragindako kalteen eta galeren ordaina emango zaio kontratistari.

9.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLaren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA

35.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio organoak kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua egikaritzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, hitzartutako zerbitzua behar den moduan eta egoki emango dela bermatzeko.

Horrez gain, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesionalen edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko beharko dira, eta, hori ezinezkoa bada, geroko beste batean egingo da.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2.- Kontratuaren arduradunaren ahalmenak zuzendari fakultatiboak hartuko ditu bere gain, SPKLaren 237. artikuluaren eta 246. artikuluaren artean xedatutakoari jarraituz.

3.- Bere funtzioak betetzeko, arduradunak eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren xede den zerbitzua emateko lekuetara, eta egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile izendatutako pertsonak lagunduta, baldin eta leku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko erabakigarriak badira. Kasu horietatik kanpo, kontratuaren arduradunak leku horietara sartzeko beharra justifikatu beharko du, berariaz eta espediente administratiboan zehaztuta. Espediente hori kontratazio organoak berretsi beharko du aurretik.

Halaber, egoki iritzitako informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala egikaritzeko eta egikaritu bitarteko edozein intzidentzia ebazteko beharrezko bilerak sustatu eta haietarako deialdiak egin ahal izango dituzte,

4.- Kontratuaren arduradunak beharrezko jarraibideak ezarriko ditu.

Honako funtzio hauek dagozkio, zehazki:

a) Egiaztatzea kontratuei baldintzei jarraituz ari dela egikaritzen, aurreikusitako epean. Funtzio horrek aukera emango du beharrezko ekintzak egiteko, egiaztatzeko betetzen direla kontratuaren kalitatearen betekizunak eta klausula sozialak, ingurumenari dagozkionak, sozialak eta berritzaileak.
b) Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala betetzea bermatzeko beste neurri batzuk hartzeko, edo Administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatiko ordaina emateko prozedura abiatu dadin proposatzea.
c) Kontratuan beharrezkoa den aldaketa oro gomendatzea, esaterako zehaztapen, jarraibide edo jardun eraginkorragoak eman ditzaketen beste baldintza batzuen kasuan.
d) Kontratuari atxikitako pertsona zein material aldetiko aldaketak informatzea, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.
e) Epearen luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena ematea eta horiek motibatzea.
f) Enpresa kontratistak azpikontratistekin dituen ordainketa obligazioak betetzen dituela egiaztatzea, hala badagokio.

5.- Kontratua bete bitartean aldatzen badira kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.

36.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresak edo enpresen jarduera adarrak batzen, banatzen, horiek ematen edo eskualdatzen badira, kontratuak jarraitu egingo du prozesu horietan esleitutako entitatearekin, hura subrogatu egingo baita kontratutik eratorritako eskubide eta obligazioetan, SPKLaren 98. artikuluan jasotako baldintzak betez gero. Kontratista aldi baterako enpresa elkartea bada, SPKLaren 69.9. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.

2.- Kontratistaren betebeharra da Administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak ediren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

37.- Kontratua besteri lagatzea

1.- Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa adjudikaziodunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan, eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketarik eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 egikarituta izatea.

c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna eta kontratuaren egikaritze fasearen arabera eskatu daitekeen kaudimena izatea, eta kontratatzeko inolako debekurik ez izatea.

d) Enpresa adjudikaziodunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen-hartzailea subrogatuta geldituko da lagatzaileari zegozkion eskubide eta obligazio guztietan.

38.- Enpresa kontratistaren betetze baldintzak eta betebeharrak

38.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratuaren aldi baterako enpresa elkarte adjudikaziodunak nahitaez egikaritu beharko ditu eta administrazio kontratatzaileari eman beharko dizkio proiektatutako obrak, kontratuan aurreikusitako epeetan.

2.- Obrak egikaritu beharko dira onartutako proiektuari eta agiriei zorrotz jarraituz, baita aplikagarria den araudiari ere eta, edozein kasutan, kontratatutako lanen izaeraren berezko arau teknikoei ere bai, hura interpretatzean enpresa kontratistak obra zuzendaritzari emandako jarraibideen arabera. Jarraibide horiek ahozkoak badira, idatziz berretsi behar dira lehenbailehen, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

3.- Kontratua enpresa kontratistaren arriskuan eta menturan egikarituko da, SPKLaren 239. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

4.- Enpresa kontratista arduratuko da proiektuan aurreikusitako irtenbideak modu egokian garatzeaz eta egikaritzeaz, obrak behar bezala amaitu arte.

5.- Obrak amaitu arte, eta berme aldia bete arte, enpresa kontratista da eraikuntzan hautemandako balizko akatsen erantzule.

Administrazioak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren ustez obraren zatiren bat gaizki egikaritu bada, enpresa kontratistak berriz egin beharko du, inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe, akatsak obrak jaso ondoren hauteman badira ere.

Zuzendaritzak uste badu akatsa duten obra unitateak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, administrazioari proposatu diezaioke horiek onartzeko, dagokion prezio beherapenarekin. Enpresa kontratistak, kasu horretan, nahitaez onartu beharko ditu administrazioak finkatutako murriztutako prezioak, salbu eta unitate akastunak bere kontura eraitsi eta berreraiki nahi baditu, kontratuaren baldintzei jarraituz.

6.- Enpresa kontratistak kontratua egikaritzeko iraunaldi osoan (luzapenak barne) eta dagokion berme aldian (luzapenak barne) aseguru kontratu bat izan beharko du, hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna estaltzeko, baita obrari eragindako kalteena ere, hitzarmen honen 45. eta 46. klausuletan aipatutako gutxieneko estaldurekin, eta berariaz aipatu beharko da bertan, besteak beste, zein pertsona dauden aseguratuta, zein diren gutxieneko estaldurak eta bermatutako zenbatekoak, baita epea ere. Agiri honen ezaugarrien taulan adierazitako zenbatekoak aseguratu beharko dira. Inguruabar hori frogatu beharko da kontratua sinatu eta, gehienez, hilabetera, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ziurtagiriak aurkeztuz, edo entitate aseguratzailearen dagozkion ziurtagiriak emanez. Atal honetan jasotako betekizunen bat frogatzen ez bada, kontratua suntsiaraziko da, obligazio hori kontratuaren funtsezko betebehar bat delako, SPKLaren 211.1.f) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Edozein kasutan, enpresa adjudikaziodunak jasango ditu dagokion frankiziaren zenbatekoko kalte-galerak, eta aseguru polizen mugak gainditzen dituztenak, baita haiek estali gabeko ondasun eta arriskuenak ere.

7.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitatzaile, adjudikazio eta egikaritze prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea, amaitu arte.

38.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

1.- Nolanahi ere, kontratua jaso aurreko hilabetean, enpresa kontratistak adjudikazio irizpideen ebaluazio bat eta kontratua egikaritu bitartean izandako egikaritze baldintza sozial berezien irizpideen ebaluazioa aurkeztu beharko ditu, X. eranskinari jarraituz, eta

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2.- Kontratuaren parte diren egikaritzeko baldintza berezi guztiak berdin eskatuko zaizkie lanak egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

3.- Ezaugarrien taularen 18. eta 19. atalean aurreikusitakoez gain, egikaritzeko funtsezko betebeharrak dira hemen adierazitakoak:

38.2.1.- Enpresa kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan dituen betebeharrak

1.- Lan alorrean, Gizarte Segurantzakoan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiturazko xedapen guztiak bete beharko ditu. Zehazki, Gipuzkoako Eraikuntzako eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean dauden beste hitzarmen batzuk edo enpresa itun batzuk galarazi gabe, eta bere ardura da osorik lan istripuen inguruko guztia. Zehazki, bere kargura eta zorroztasun osoz bete beharko du segurtasuneko eta osasuneko plana, 1627/1997 Errege Dekretuan, urriaren 24koan, eraikuntza obretan segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenean, xedatutakoari eta agiri honetan jasotakoari jarraituz idatzitakoa. Enpresa kontratistak hori ez-betetzeak ez dio inongo erantzukizunik ekarriko entitate kontratatzaileari.

2.- Zuinketa egiaztatzeko akta sinatu aurretik, eta lanak jasotzeko akta egin aurretik, edo kontratazio organoak edo kontratuaren erantzuleak egoki iritzitakoan, enpresa adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzera atxikitako pertsonen izen zerrendaren eta kopuruaren erantzukizunpeko adierazpena, sexua, lanaldia, kategoria profesionala, kontratuaren iraunaldia eta soldata kostuak adierazita.
- Altako langileen txostena, Gizarte Segurantzak igorritakoa, eta Gizarte Segurantzak igorritako txosten ziurtatua, langileen izenezko zerrenda, enpresaren antzinatasuna eta kotizazio oinarriak adierazten dituena.
- Hala badagokio, enpresaren RLC eta RNT edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eredu estandarizatuko lan-kontratuen kopia.

3.- Enpresa kontratistak, halaber, justifikatu egin beharko du enpresa azpikontratuek obrak egikaritzean ere aplikatzen dituztela lan alorreko, Gizarte Segurantzako eta, zehatzago, aipatutako Gipuzkoako Eraikuntzako eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboaren lan baldintzak, enpresei beharrezko datuak eskatu ondoren, indarrean dauden eta hitzarmen horretan xedatutakoa hobetzen duten beste hitzarmen batzuk edo enpresa itun batzuk galarazi gabe. Horrez gain, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko obligazioak betetzen dituztela ere justifikatu beharko du.

4.- Enpresa kontratistak, kontratua egikaritu bitartean, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren araberakoa, eta ordaindutako soldata inola ere ezingo da izan hori baino txikiagoa.

5.- Kontratistak adierazi beharko du kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien. Horretarako, nahitaez eman beharko du eskatutakoa bezainbeste informazio, adjudikazioaren ondoren langile horiei egiaz aplikatutako lan baldintzen ingurukoa.

6.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoari eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratuaren arduradunari.

7.- Enpresa kontratistak lan baldintza jakin batzuk sustatu beharko ditu, sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena saihestuko dutenak, eta prozedura bereziak ezarri beharko dute horiek prebenitzeko. Horrez gain, horrelakorik jasan duenak salaketak edo erreklamazioak egin ahal izateko bideak jarri beharko ditu.

6.- Klausula honetan ezarritako betebeharrak betetzetik eratorritako gastuak enpresa adjudikaziodunaren konturakoak izango dira, eta kontratua egikaritzeko eskainitako prezioaren barruan egongo dira.

9.- Azpikontrataziorik egitekotan, enpresa azpikontratista ere klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Azpikontratatutako jarduerarekin hasi aurretik, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

10.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik administrazioa zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

11.- Aurreko paragrafoetan ezarritako obligazioak egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarri dira, eta kontratua egikaritzeko egiaztatu egin beharko dira. Horiek betetzen ez badira, zehapen ekonomikoak ezarriko dira, 38.2.4. klausulan azpikontrataziorako ezarritakoan salbu. Zehapenak ez-betetzearekin larritasunarekin proportzionalak izango dira, eta zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa. Edozein kasutan, agiri honen arabera ez-betetzea larria den betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat joko dira, eta horiek ez betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazi ahalko da.

38.2.2.- Bete beharreko hizkuntza betebeharrak

1.- Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan ezarritako bi hizkuntza ofizialen araubidearen mendean dago, 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jarduketa Esparruan Euskara Normalizatzeko Planak, araututakoaren mendean, hain zuzen.

2.- Diseinu eta jarduera guztien planteamendua bi hizkuntzetan egin beharko da (errotuluak, argitalpenak, seinaleztapenak, abisuak eta komunikazioak barne), hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, dagokion jarduera egiteko orduan, eta jarduera hori zuzendutako herritarren segmentua kontuan hartuta, euskarari lehentasuna ematea komeni dela ikusten den kasuetan izan ezik.

3.- Hizkuntza betekizun hori betetzen ez bada, SPKLaren 192. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da, kontratuaren xede den prestazioa oker egin delako.

4.- Zehapena ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasun irizpideari jarraituz ezarritakoa.

38.2.3.- Emakume eta gizonen berdintasun arloko betebeharrak

1.- Enpresa adjudikaziodunak, prestazioa egitean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko ditu, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko II. tituluko IV. kapituluak xedatzen duenari jarraituz.

Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 50 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusi ditzake, besteak beste, ondorengo arloetan: okupazioan, sustapen eta prestakuntzarako aukeretan; sailkapen profesionalean; ordainsarietan; bizitza pertsonala, familiakoa eta lana bateragarri egiteko lanaldiaren antolaketan; eta jazarpen sexualari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko zereginean.

Plan hori kontratua egikaritzearen esparruan egin beharko da, aipatutako lege organikoan ezarritako edukiarekin.

“Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Entitate Kolaboratzaile” bereizgarria eskuratzeak, Eusko Jaurlaritzaren 11/2014 Dekretuan, otsailaren 11koan, jasotakoa, egiaztatu ahal izango du enpresa kontratistaren antolakuntzan berdintasun plan bat dagoela eta aplikatzen dela.

Administrazio kontratatzaileak edozein unetan eskatu ahalko dio enpresa kontratistari bereizgarri hori erabiltzeko baldintzak betetzen dituela frogatzeko.

2.- Enpresa adjudikaziodunak neurriak ezarri behar ditu kontratu hau egikaritzera atxikitako langileen bizitza pertsona eta/edo familiakoa uztartzen laguntzeko, eta egiaztatu egin beharko du, hala badagokio, enpresa azpikontratistak neurri berdinak ezarri dituela.

Laneko eta familiako bizitza uztartzea sustatzearen barruan, adjudikaziodunak nahitaez hartu beharko ditu neurriak familiako amak dituzten langileek ordutegi malgua izan dezaten, edo mekanismoak ezarri beharko ditu lanaldi partzialaren eta osoaren artean mugitzeko familiako ardurak dituzten langileentzat.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

3.- Kontratua egikaritzeko beharrezkoa bada langile gehiago kontratatzea, eta enpresa kontratistan kontratua egikaritzeari lotutako emakumeen ordezkaritza desorekatua bada, gutxienez emakume bat kontratatu beharko du, edo emakume baten aldi baterako kontratazioa mugagabeko egin beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeen ordezkaritza edo presentzia plantilla osoaren % 40 baino gutxiago bada.

4.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako obligazioak egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarri dira, eta kontratua egikaritzeko egiaztatu egin beharko dira. Horiek betetzen ez badira, zehapen ekonomikoak ezarriko dira. Zehapenak ez-betetzearekin larritasunarekin proportzionalak izango dira, eta zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa. Edozein kasutan, agiri honen arabera ez-betetzea larria den betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat joko dira, eta horiek ez betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazi ahalko da.

38.2.4.- Betebeharrak azpikontratazioan

1.- Enpresa kontratistak hirugarrenekin adostu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea. Azpikontratuak egiteko, bete egin beharko dira SPKLaren 215. artikuluaren 2. apartatuaren araberako betekizun galdagarriak.

2.- Ezaugarrien taulako 15. atalean aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- SPKLaren 215.2. artikuluan ezarritako obligazioak betetzen ez badira, artikulu berbereko 3. eta 4. ataletan xedatutakoa aplikatuko da.

4.- Kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira azpikontratistak, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne, baita Estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharra ere, datuen babesari dagokionez.

5.- Enpresa kontratistak enpresa azpikontratistei egindako ordainketek jarraitu egin beharko diote SPKLaren 216. artikuluan xedatutakoa.

6.- Kontratistak, gainera, honako obligazio hauek beteko ditu:

a) Enpresa kontratistak bete egingo ditu 32/2006 Legean, urriaren 18koan, Eraikuntzako Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duenean, ezarritako azpikontratazio arauak, baita laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia ere, eta bermatuko du azpikontratista guztiek araudi hori betetzen dutela. Zehazkiago, egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresa guztiek betetzen dituztela honako obligazio hauek, kontratua egikaritzeari lotutakoak:
   - azpiegitura eta bitarteko egokiak izatea jarduera egiteko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko, eta langileen legez kanpoko lagapenik gertatu ez izatea.
   - langileek beharrezko prestakuntza dutela laneko arriskuen prebentzioaren alorrean.
   - prebentzioko antolakuntza egokia duela.
   - enpresa azpikontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela.
   - Gutxienez mugagabeko kontratua duten langileak % 30 direla gutxienez, lanaren egonkortasuna bermatzeko.
   - Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuta dagoela.
   - betetzen dituela Legeak ezarritako azpikontratazio araubidearen mugak.

b) Enpresa kontratistak azpikontratazio liburua izan beharko du, azpikontratazio libururako sarbidea eman beharko die obran esku hartzen duten eragile guztiei, eta azpikontratazio liburuan idatzitako azpikontratazio guztien berri eman beharko dio segurtasuneko eta osasuneko koordinazioari.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

c) Enpresa kontratistak obrako enpresa guztietako langileen ordezkariei eman beharko die informazioa obrako kontratazio eta azpikontratazio guztien inguruan, baita jardueren koordinaziorako aurreikusitako neurrien berri ere.

d) Azpikontratatutako jarduerarekin hasi aurretik, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

e) Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat egikaritzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo SPKLaren 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

f) Enpresa kontratistak egiaztatuko du enpresa azpikontratistak, kontratua egikaritzeko langile gehiago kontratatu behar baditu, esklusio sozialeko arriskuan daudenak, langabeak edo lan merkaturatzeko zailtasun handiak dituztenak kontratatzea sustatzen duela.

7.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkaritzari, lan legerian xedatutakoaren arabera.

8.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak azpikontratua islatuko den dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, eta haiek ez-betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.

9.- Aurreko paragrafoetan ezarritako obligazioak, indarrean dagoen kontratazio araudiak ezartzen ez dituenak, egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarri dira, eta kontratua egikaritzeko egiaztatu egin beharko dira. Horiek betetzen ez badira, zehapen ekonomikoak ezarriko dira. Zehapenak ez-betetzearekin larritasunarekin proportzionalak izango dira, eta zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa. Edozein kasutan, agiri honen arabera ez-betetzea larria den betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat joko dira, eta horiek ez betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazi ahalko da, baldin eta betetzen badira SPKLaren 211. artikuluko 1. apartatuaren f) hizkiaren bigarren paragrafoan ezarritako betekizunak.

10.- Administrazio kontratatzaileak egiaztatu ahal izango du kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz bete dituela.

Horretarako, administrazio kontratatzaileak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio enpresa kontratistak, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea gauzatzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean. Halaber, entitate koontratatzeaileak hala eskatuz gero, haiei egindako ordainketak egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, legez SPKLaren 216. artikuluan eta 3/2004 Legean, abenduaren 29koan, ezarritako epeen barruan, aplikagarria zaion heinean. Obligazio horiek egikaritzeko baldintza berezitzat jotzen dira, eta horiek betetzen ez badira, jarraian adierazitako zehapenak ezarri ahalko dira, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioak ekartzeaz gain: eguneko zehapenak, ordainketan atzeratutako egun natural bakoitzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60koak; zehapenaren zenbatekoak ezingo du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu.

38.3.- Informazioaren segurtasun arloko betebeharrak

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa, datuak edo zehaztapenak, edo kontratua egikaritzean esku artean izan direnak, kontratistak eta haren langileek konfidentzialtzat jo beharko dituzte, eta ezingo dira osorik edo hein batean argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo hirugarrenentzat maileguan eman, SPKLaren 133.2. artikuluan xedatzen duen moduan. Obligazio horiek iraun egingo dute entitate kontratatzailearekiko harremanak amaitu ondoren ere.

2.- Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasun Politika, 2017ko azaroaren 13ko GAOan argitaratutakoa, eta zerbitzu edo informazio horiekin lotutako segurtasun araudia. Horrez gain, bere langileak informatu eta prestatu beharko ditu.

3.- Kontratua egikaritzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu, tratamenduaren arduradunak honako hauek egin beharko ditu:

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

a) Ezaugarrien taulan adieraziko da tratamendu horren helburua. Kontratistak ezingo ditu datu horiek erabili zehaztutakoak ez beste helburu batzuetarako. Kontratistak datuak beste helburu batekin erabiltzen edo komunikatzen baditu kontratuko zehaztapenak edo indarrean dagoen araudia hautsiz, tratamenduaren organo arduraduntzat joko da hura ere, eta berak egindako arau hausteen erantzule izango da.

b) Kontratistak nahitaez errespetatu behar du datuen babesaren alorreko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia, baita entitate kontratatzaileak emandako jarraibideak ere.

c) Kontratistak, kontratua formalizatu aurretik, azaldu beharko du non dauden zerbitzariak, eta nondik emango dituen horiei lotutako zerbitzuak. Kontratuaren iraunaldian horren inguruko edozer aldatuz gero, behar bezala komunikatu beharko da.

d) 4.- Kontratistak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatuko ditu, datu horiek suntsitzea, galtzea edo aldatzea, baimenik gabe bidaltzea edo kontsultatzea saihesteko..

e) Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, kontratistak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota hark izendatutako tratamendurako arduradunari.

Atal honen a), b) eta c) letretan adierazitakoa, eta lizitatzaileek beren eskaintzetan zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten; enpresaren izena edo profila, gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez definitutakoa; eta aginduak jasoko dituzten azpikontratistena adierazteko betebeharra funtsezko obligazioa da SPKLaren 211. artikuluaren 1. ataleko f) hizkian aurreikusitakoaren ondoreetarako. d) eta e) hizkiek jasotako obligazioak egikaritzeko baldintza berezitzat joko dira.

4.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du adjudikaziodunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

38.4.- Kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko betebeharrak

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko iritzi dio balio etikoak eta jardunbide arauak eta kudeaketa onaren printzipioak eta jarduketa profesionalaren arauak sartzeari. Horiek zuzendu behar dituzte kontratazio publikoko jarduerak.

2.- Hori guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/UE Zuzentarauaren, 2014ko otsailaren 26koaren, Kontratazio Publikoari buruzkoaren, 16. Oinarrian aurreikusitakoa jarraituz. Bertan, botere publikoak behartzen ditu beharrezko bitarteko guztiak erabiltzera kontratazio publikoko prozedurei interes gatazkek eragin ez diezaieten. Berariaz aipatzen du, gainera, “horrek berekin dakar interes gatazkak hautematera, saihestera eta ebaztera bideratutako prozedurak erabiltzea”.

Hori dela eta, prozedura horren zuzentasuna bermatzeko, VI. eranskina atxiki da, Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionalaren Esparrua betetzearen adierazpen eredua.

3.- Kode hori, funtsezko obligazioa denez, nahitaez bete behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako lizitazioetan parte hartzen duten enpresek eta entitateek eta adjudikaziodunek. Betetzen ez bada, kontratazio organoak haren aurkako ekintza egin duen enpresa edo entitatea baztertu ahalko du, edo, bestela, kontratua suntsiarazi ahalko du erruzko ez-betetzeagatik, horretarako legez ezarritako ondoreekin.

4.- Kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez denean, zehapen bat ezarriko da, eta Jokabide Kodearen ez-betetze bakoitza arau hauste larri moduan jasoko da. Horrek dagokion zehapena ekarriko du, kontratuaren aurrekontuaren % 10era iritsi ahalko dena.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

5.- Zehapenak ezartzeko prozedurak kontuan hartuko ditu zehapenaren kontraesan eta graduazio printzipioak, proportzionaltasunari eta gertatutako inguruabarrei erreparatuta.

38.5.- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinen arloko betebeharrak

1.- Agiri honen ezaugarrien taularen 28. atalean aurreikusten bada, aplikagarria den araudian aurreikusitako obligazioez gain, obra egikaritzen duen pertsona fisiko edo juridikoak nahitaez plan bat aurkeztu beharko du, islatuko duena nola beteko dituen obrak sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakinen inguruan bete beharreko obligazioak, bereziki 105/2008 Errege Dekretuaren, otsailaren 1ekoaren, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenaren, 4.1. eta 5. artikuluetan jasotakoak. Halaber 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena, bete beharko da.

2.- Behin plana zuzendaritza fakultatiboak onartu duenean, obraren kontratu izaerako dokumentu bihurtuko da.

3.- Obligazio horiek betetzen ez badira, SPKLaren 192. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da, kontratuaren xede den prestazioa oker egin delako.

4.- Zehapena ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasun irizpideari jarraituz ezarritakoa.

38.6.- Lantaldeari eta langileei buruzko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistak lan talde eta langile egokiekin eman beharko du zerbitzua, bere eskaintzan jasotakoekin, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun beharko die.

2.- Zehazki, bere kargura aurreikusi beharko du proiektuaren eta obraren laguntza teknikoa, eta behar besteko gaitasuna izan behar du lan eta espezialitate ezberdinen beharrei erantzuteko.

3.- Administrazioak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio gai edo alor zailetan edo kritikoetan espezialista arduradunak izendatzeko, zuzendaritza fakultatiboak beharrezkoa dela iritziz gero.

4.- Agiri honetan jasotako lanak egikaritzeko, enpresa kontratistak nahitaez izendatu beharko ditu kontratua sinatu aurretik izenez identifikatutako fakultatiboak eta gainerako langileak, bertan adierazitako arduraldiarekin. Horrenbestez, kontratuaren iraunaldian, hari arduraldi osoarekin atxikitako langileek ezingo dute beste lan batean esku hartu. Halaber, enpresa kontratistak ezingo ditu izendatutako langileak ordeztu kontratazio organoaren berariazko baimenik gabe. Ondore horietarako, enpresa kontratistak kontratua egikaritzeko konpromisoa hartutako edozein langile tekniko ordezteko, administrazioak onartu egin beharko du, eta, aurretik, hala eskatuz gero, izendatu beharreko pertsonaren edo pertsonen curriculuma aurkeztu beharko da.

5.- Laguntzaileek parte hartzea proposatzen bada, laguntzeko konpromisoaren adierazpena aurkeztu beharko da. Enpresa kontratistak ezingo ditu alde batera utzi eskaintzan proposatutako kolaborazioak, eta ezingo ditu beste batzuekin ordeztu, kontratuaren arduradunaren oniritzirik gabe.

6.- Aurreko paragrafoetan ezarritako obligazioak egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarri dira, eta kontratua egikaritzeko egiaztatu egin beharko dira. Horiek betetzen ez badira, zehapen ekonomikoak ezarriko dira. Zehapenak ez-betetzearekin larritasunarekin proportzionalak izango dira, eta zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa. Edozein kasutan, ez-betetzea oso larria den betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat joko dira, eta horiek ez betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazi ahalko da. Zehapen horiek aplikatuko dira enpresa kontratistari ordainketa oso edo partzial moduan eman beharreko zenbatekoetatik kenduta, edo, bestela, bermetik.

38.7.- Makineriari eta bitarteko teknikoei buruzko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistak bere eskaintzan aipatutako makineria eta bitarteko teknikoak ere jarriko ditu, eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.

2.- Eskaintzan jasotako makineria edo bitarteko teknikoak ordezteko, administrazioak onartu egin beharko du, eta, horretarako, proposamen justifikatu bat aurkeztu beharko da.

3.- Makineria eta bitarteko teknikoak une oro mantenduko dira laneko baldintza egokietan, eta kontratuaren xede diren obretarako beharrezko arduraldiarekin. Ezingo dira erretiratu zuzendaritza fakultatiboaren

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

baimenik gabe, eta kentzeko justifikatu egin beharko da bukatu direla horiek beharrezko zituzten obra unitateak.

4.- Aurreko paragrafoetan ezarritako obligazioak egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarri dira, eta kontratua egikaritzeko egiaztatu egin beharko dira. Horiek betetzen ez badira, zehapen ekonomikoak ezarriko dira. Zehapenak ez-betetzearekin larritasunarekin proportzionalak izango dira, eta zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa. Edozein kasutan, ez-betetzea oso larria den betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat joko dira, eta horiek ez betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazi ahalko da. Zehapen horiek aplikatuko dira enpresa kontratistari ordainketa oso edo partzial moduan eman beharreko zenbatekoetatik kenduta, edo, bestela, bermetik.

38.8.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak

1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, non eta kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez duen; eta haien gaineko eskumena duten organismoek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bere kontura bete behar ditu kontratistak.

2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, horien ordainketak edo horietarako gordailua egitea ere enpresa kontratistaren kontua izango da.

39.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak

Kontratistaren kontura joango dira kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta eskritura publiko bilakatzen bada, baita kontratatutako prestazioa betetzeko enpresak egin beharreko gastuak ere, orokorrak, finantzarioak, aseguruetakoak, tasak, fidantzak, entseguak, garraioa eta lekualdatzeak, teknikarien eta beren karguko laguntzaileen ordainsariak eta dietak eta agiri honetan aurreikusitako gainerakoak.

40.- Klausula sozialak ez betetzearen ondorio juridikoak

1.- Klausula administratibo partikular honetan egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarritako obligazioen ez-betetzeak arin, larri edo oso larri gisa sailkatuko dira, zehapenak jartzeko ondorioetarako.

1.1.- Honela sailkatuko da aurreikusitako obligazio sozialak, lan alorrekoak, Gizarte Segurantzakoak, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrekoak ez betetzea:

1.1.1.- Arau hauste arinak izango dira:

a) Langileari informazioa idatziz ez ematea kontratuaren funtsezko elementuen eta laneko prestazioa egikaritzeko baldintza nagusien inguruan, dagokion araudian ezarritako moduan eta epeetan.
b) Lanaldi partzialeko langileei eta iraupen jakineko kontratua edo aldi batekoa duten langileei informazioa ez ematea enpresan dauden lanpostu hutsen inguruan.
c) Garaiz eta behar bezala laneko autoritate eskudunari informazioa ez ematea gertatutako lan istripuen inguruan eta aitortutako gaixotasun profesionalen inguruan, arintzat jo direnean.
d) Garaiz eta behar bezala ez komunikatzea enpresako zerbitzutik kendutako langileen bajak eta ukitzen dituzten gainerako aldaketak.
e) Dagokion entitateari ez bidaltzea langileek emandako bajen txosten medikoak, bajaren baieztapena edo aldi baterako ezintasunaren alta.
f) Obligazio formal edo dokumentalei eragiten dieten beste arau hauste batzuk.

1.1.2.- Arau hauste larriak izango dira:

a) Lan kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori galdagarria denean edo langileak eskatu duenean.
b) Kontratu modalitateen, eta iraupen jakineko kontratuen eta aldi baterakoen araudia ez betetzea, legezko iruzurrez erabiliz.
c) Lanaldiaren, gaueko lanaren, aparteko orduen, ordu osagarrien, atsedenen, oporren eta baimenen inguruko arauak edo legezko mugak ez betetzea.
d) Laneko baldintza substantzialak aldatzea, enpresak alde bakarretik hala inposatuta, legez ezarritako prozeduretara jo gabe.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako baldintzak baino okerragoak ezartzea, baita langileei Langileen Estatutuaren Legearen 4. artikuluan aitortutako eskubideen aurkako egintzak edo omisioak ere, salbu eta oso larritzat sailkatu behar badira.

f) Ez betetzea laneko segurtasunaren eta osasunaren plana laneko arriskuak prebenitzeko araudian ezarritako irismenarekin eta edukiarekin egiteko obligazioa, bereziki egiazko edukia eta eduki egokia ez duelako obrako langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku espezifikoei dagokienez, edo ez zaielako egokitzen garatutako jardueren edo prozeduren ezaugarri bereziei edo lanpostuen inguruari.

g) Ez betetzea laneko segurtasunaren eta osasunaren jarraipena laneko arriskuak prebenitzeko araudian jasotako irismenarekin eta edukiarekin egiteko obligazioa.

h) Ez egitea indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoak diren azterketa medikoak eta langileen osasun egoeraren aldizkako zaintza probak, edo haien emaitzak ez jakinaraztea ukitutako langileei.

i) Langileak bideratzea langilearen ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren baldintzak dituzten lanpostuetara, oso arau hauste larritzat jotzen denean salbu.

j) Laneko autoritateari garaiz eta behar bezala ez komunikatzea, indarrean dauden xedapenei jarraituz, gertatutako laneko istripuak eta aitortutako gaixotasun profesionalak, larritzat, oso larritzat edo hilgarritzat jotzen badira; edo ikerketarik ez egitea langileen osasunarentzako kalteak eraginez gero edo prebentzio neurriak nahikoak ez izatearen zantzuak izanez gero.

k) Laneko arriskuak prebenitzeko araudia ez betetzea, salbu eta arintzat edo oso larritzat jotzen bada.

l) Laneko zentroa edo lekua garbi ez mantentzea, ohikoa denean edo bertatik langileen ongizate fisikoarentzako edo osasunarentzako arriskua datorrenean.

m) Hasieran bere zerbitzura lanean hasitako l langileen afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo hura eskatzea ikuskaritza jarduketa baten ondorioz, ezarritako epetik kanpo. Ondorio horietarako, ukitutako langile bakoitzeko arau hauste bana dela ulertuko da.

n) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ez sartzea, arauzko moduan eta epeetan, kotizazio dokumentuak aurkeztuta, baldin eta dirua ez sartu izana ez denean enpresaren konkurtso adierazpen baten ondorioa ez bada, ezta ezinbesteko kasu baten ondorio ere, eta ez bada ikuskaritza jarduketaren hasiera baino lehen kuoten ordainketa atzeratzeko eskatu, salbu eta aurkako ebazpenen bat egon bada.

1.1.3.- Oso arau hauste larriak izango dira:

a) Behin baino gehiagotan zor den soldata ez ordaintzea eta berandu ordaintzea.

b) Enpresak alde bakarreko erabakiak hartzea, adinagatik edo desgaitasunagatik zuzeneko edo zeharkako diskriminazioak negatiboak dakartzatenak, edo aldeko edo aurkako diskriminazioak dakartzatenak ordainsarien, lanaldien, prestakuntzaren, sustapenaren eta beste lan baldintza batzuen alorretan, edo diskriminazioak jatorrizko inguruabarrengatik, arraza edo etnia, egoera zibila, baldintza soziala, erlijio edo sinesmenak, ideia politikoak, sexu orientazioa, sindikatuetarako edo haien erabakietarako atxikipena edo atxikipen eza eta hizkuntza barne.

c) Enpresak erabakiak hartzea, langileak oker tratatzea dakartenak enpresan egindako erreklamazio baten ondorioz edo tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa betetzea eskatzera bideratzeko ekintza administratibo edo judizial baten ondorioz.

d) Enpresak ez betetzea langileekin dituen pentsio konpromisoak, pentsio planak eta funtsak arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan.

e) Berehala ez geldiaraztea edo etetea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak hala eskatuta, egindako lanak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiari erreparatu gabe egindakoak, eta, Ikuskaritzaren ustez, langileen segurtasunerako eta osasunerako berehalako arrisku larria dakartenak; edo lanak berriz hastea geldiaraztearen arrazoiak aurretik konpondu gabe.

f) Langileak bideratzea langilearen ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren baldintzak dituzten lanpostuetara, baita zeregin jakinetara bideratzea laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean haien gaitasun profesionalak kontuan hartu gabe, bertatik langileen segurtasunerako eta osasunerako berehalako arrisku larria datorrenean.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

g) Prebentziozko baliabiderik ez egotea nahitaezkoa denean, edo haien presentziatik eratorritako obligazioak ez betetzea, dagokion araudiak arriskutsutzat edo arrisku bereziduntzat jotako jarduerak direnean.

h) Ez betetzea legez edo arauz ezarritako azpikontratatutako enpresek giza baliabideak dituztela egiaztatzeko betebeharra, bai zuzendaritza alorrean bai ekoizpena alorrean; eta beharrezko prebentzioa dutela laneko arriskuen prebentzioaren alorrean, prebentzio antolakuntza egokia dutela eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela.

i) Ez hartzea lan baldintzei aplikatu beharreko beste prebentzio neurririk, laneko arriskuak prebenitzeko araudia egikarituz, eta bertatik langileen segurtasunarentzat edo osasunarentzat berehalako arrisku larriren bat eratortzea.

j) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ez sartzea, arauzko moduan eta epeetan, kotizazio dokumentuak aurkeztu gabe.

k) Adierazpen edo datu faltsu edo zehaztugabeak ematea kotizazio dokumentuetan edo beste edozein dokumentutan, iruzurrez, kuotak aldatzean.

l) Kontratuak eteteak edo lanaldiak murrizteak ukitutako langileei lana ematea, langabeziako prestazioen laneko autoritateari edo entitate kudeatzaileari komunikatutako kontratuak eteteko neurrien aplikazio aldian edo lanaldia murrizteko ordutegian.

m) Oker atxikitzea, eta epean ez sartzea, bere langileei deskontatutako Gizarte Segurantzaren kuotaren zatia, edo legez ezarritakoak baino deskontu handiagoak egitea.

1.2.- Honela sailkatuko da aurreikusitako azpikontratazio obligazioak ez betetzea:

1.2.1.- Arau hauste arinak izango dira:

a) Obran azpikontratazio liburua ez izatea, eraikuntzako sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiak eskatutakoa.

b) Enpresa kontratistak ez egiaztatzea enpresa kontratistak erabiltzen duen makineria izatearen dokumentazioa edo titulua, eta indarrean dauden legezko xedapenek eskatutako informazio guztia.

c) Segurtasunaren eta osasunaren koordinazioaz arduratzen den pertsonari ez jakinaraztea azpikontratazio liburuan jasotako azpikontratazioa.

1.2.2.- Arau hauste larriak izango dira:

a) Eraikuntzaren sektorean azpikontratazioa arautzen duen legean eskatutako azpikontratazio liburua ez izatea, ordenatuta eta egunean ez izatea, dagokion araudiak eskatutako baldintzetan.

b) Ez egiaztatzea azpikontratatutako enpresek giza baliabideak dituztela, bai zuzendaritza alorrean bai ekoizpena alorrean; eta beharrezko prebentzioa dutela laneko arriskuen prebentzioaren alorrean, eta prebentzio antolakuntza egokia dutela.

c) Oro har, kontratua egikaritu bitartean enpresa azpikontratistak ez egiaztatzea azpikontratazio klausulan adierazitako obligazioak, salbu eta arau hauste arin edo oso larri moduan aurreikusi bada.

d) Kontratua egikaritzeko esparruan baimentzea azpikontratistek edo langile autonomoek parte hartzea, legez onartutako azpikontratazio mailak gaindituta, zuzendaritza fakultatiboaren berariazko onespenik gabe, salbu eta oso arau hauste larria bada.

e) Langileen ordezkariei egindako azpikontratazioen berri ez ematea.

1.2.3.- Oso arau hauste larriak izango dira:

b) Kontratua egikaritzeko esparruan baimentzea enpresa azpikontratistek edo langile autonomoek parte hartzea, legez onartutako azpikontratazio mailak gaindituta, zuzendaritza fakultatiboaren berariazko onespenik gabe, eraikuntza obretarako arauen arabera arrisku bereziko lanak direnean.

b) Langileak lagatzea, indarrean dagoen legediak debekatutako baldintzetan.

e) Kontratuaren zati bat egikaritzeko kontratatzea antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonak edo SPKLaren 71. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

d) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratistak betetzen duela mugagabe kontratatutako langileen gutxieneko proportzioaren muga, eraikuntzaren sektorean azpikontratazioaren inguruko araudiak definitutakoa.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

1.3.- Honela sailkatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurreikusitako obligazioak ez betetzea:

1.3.1.- Arau hauste arina izango da kontratazio organoari ez aurkeztea kontratua egikaritzearen esparruan egindako berdintasun plana, aurkeztea bidezkoa denean.

1.3.2.- Arau hauste larriak izango dira:

a) Ez egitea kontratua egikaritzearen esparruari egokitutako berdintasun plana, egitea bidezkoa denean.

b) Oro har eta sistematikoki ez betetzea kontratua egikaritzearen esparruan egindako berdintasun planean jasotako neurriak.

c) Ez ezartzea kontratuari atxikitako langileen bizitza pertsonala edo familiakoa uztartzea erraztuko duen neurririk.

d) Gutxienez emakume bat ez kontratatzea obra egikaritu bitartean, edo emakume baten aldi baterako kontratazioa mugagabe ez bihurtzea, kontratua egikaritzeko beharrezkoa denean langile gehiago kontratatzea, eta enpresa kontratistak kontratuari atxikitako plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua duenean.

1.3.3.- Oso arau hauste larria izango da enpresako zuzendaritza ahalmenak erabiliz sexuagatiko jazarpena egitea, edozein dela ere haren subjektu aktiboa.

2.- Honako zehapen ekonomiko hauek ezarriko dira egikaritzeko baldintza berezi moduan ezarritako obligazioak bete ezean, salbu eta azpikontratazioaren inguruko 38.2.4. klausulan araututako kasuetan, kontratua suntsiaraztea erabakitzen denean izan ezik:

2.1.- Arintzat jotako arau hausteei aplikatuko zaien zehapenak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % 4.

2.2.- Larritzat jotako arau hausteei aplikatuko zaien zehapena kontratuaren prezioaren % 4 baino handiagoak izango dira, baina ez dute gainditukо haren % 7.

2.3.- Oso larritzat jotako arau hausteei aplikatuko zaien zehapena kontratuaren prezioaren % 7 baino handiagoak izango dira, baina ez dute gainditukо haren % 10, salbu eta agiri honen hurrengo klausulan azpikontrataziorako aurreikusitakoan.

3.- Ezarritako zehapen horiek aplikatuko dira enpresa kontratistari ordainketa oso edo partzial moduan eman beharreko zenbatekoetatik kenduta, edo, bestela, hala badagokio eratutako bermetik, ordainagirietatik kendu ezin direnean.

4.- Ez betetzea oso larritzat jotzen den obligazioak kontratuaren funtsezko obligaziotzat joko dira, eta horiek bete ezean kontratua suntsiarazi ahalko da.

41.- Berandutza zigorrak eta beste zigor batzuk

1.- Kontratazio organoak, SPKLaren 192. eta 193. artikuluetan ezarriarekin bat, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik:

a) Guztirako epea edo epe partzialak betetzeko berandutzeagatik.

b) Prestazioa akatsez betetzeagatik, edo agiri honetan jasotako beste egikaritze baldintza bereziren bat, hurrengo ataletan jasotakoak ez besteren bat, ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik.

c) Ez-betetze edo akatsezko betetzeagatik, eskaintzak balioesteko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei dagokienez.

d) Soldaten ordaintzean ez-betetze edo atzerapen errepikatuengatik edo hitzarmen kolektiboetatik ondorioztatzen direnenak baino soldata baldintza baxuagoak aplikatzeagatik, aplikazio hori larria eta dolozkoa denean.

2.- Honako hau izango da zehapenen zenbatekoa:

a) a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLaren 193. artikuluko 3. apartatuan aurreikusten den zenbatekoa, non eta ezaugarrien taulako 23. atalak ez duen besterik ezartzen.

b) b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari; horrelakoetan % 7raino iritsi

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna balioesteko.

Zehapen horiek, klausula honen beraren a) hizkiko 1. atalak aipatutako obligazioak ez betetzeagatik adierazitako salbuespena salbuespen, arau haustearen larritasunarekin proportzionalak izan beharko dira, eta horien zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa, BEZ kanpo, eta guztien batura ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 50 baino handiagoa.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta hori behar bezala egikaritzeko beharrezko iritziz gero aurreko atalean adierazitakoez besteko zehapen batzuk finkatzeari, ezaugarrien taulako 23. atalean zehaztuko dira horiek.

4.- Enpresa kontratista berandutze egoeran sartzeko ez da behar Administrazioak, aldez aurretik, betetzeko agindua ematerik.

5.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, hizkuntza baldintzak edo egikaritzeko baldintza berezietako beste edozein ez-betetze edo akatsez betetzeagatiko zehapenak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak balioesteko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzeagatiko edo akatsez betetzeagatiko zehapenak ezarriko dira, hain zuzen kontratazio organoak, kontratua gauzatzen den bitartean edo harreraren unean, egiaztatzen duenean kontratistari egozteko moduko arrazoiak direla-eta horrek ez duela kontratua –edo adjudikazioari begira garrantzitsua izan den eta eskaintzan bere gain hartutako konpromisoetakoren bat– bete.

Bete gabeko konpromisoak garrantzitsuak direla joko da baldin eta, kontratistak bete ez duen irizpidean lortu duen puntuazioaren % 50 deskontatuz gero, haren eskaintza ez bazitekeen ondoen baloratua izango.

7.- Akatsezko betetzeagatiko zehapenak ezarrita ere, kontratistak legezko obligazioak izango ditu akats horiek konpontzeari dagokionez.

8.- Zehapena ezartzeak ez du kalte-galerengatiko kalte ordaina ordaintzetik salbuesten.

9.- Berandutzeengatiko zehapenen zenbatekoa fakturetatik edo ziurtagirietatik kenduko da edo, hala badagokio, bermetik, aipatutako dokumentuetatik kendu ezin bada. Bermetik kentzen badira, kontratistak hura birjarri edo handitu beharko du, egikaritu eta 15 egun naturalera. Bestela, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

42.- Zuinketa egiaztatzea

1.- Kontratuak zehaztutako epearen barruan, hau da, justifikatutako salbuespenetan izan ezik, gehienez ere formalizatu eta hilabetekoan, obren administrazio arduradunaren zerbitzuak lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, kontratistaren aurrean, eta emaitzaren akta jaso beharko du. Bi alderdi interesdunek sinatu beharko dute, eta haren ale bat bidaliko zaio kontratua egin zuen organoari. Zuinketaren aktak berariaz jaso beharko du APKLEOaren 140. artikuluan xedatutakoa.

2.- Zuinketa egiaztatzearen akta sinatu aurretik, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari aurkeztu beharko dio agiri honen 38.2.1 klausulako 2. atalean jasotako dokumentazioa. Obligazio hori bete ezean, ondorioak klausula horren 11. atalean jasotakoak izango dira.

3.- Kontratuaren xedea sortaka banatuz gero, lanak hasiko dira lote bakoitza garatu beharreko egikaritze fasearen arabera, aurretik zuinketa egiaztatzeko akta edo hasteko akta egin bada. Akta hori lote bakoitzeko lanak hasi aurretik sinatu beharko da.

4.- Premiazkotzat jotako espedienteetan, kontratua egikaritzen hasteko epea ezingo da hilabetetik gorakoa izan, formalizatzetik zenbatzen hasita.

5.- Zuzendaritza fakultatiboaren iritziz, eta kontratistaren erreparorik gabe, egiaztapenaren emaitzak proiektuaren bideragarritasuna eta lursailen eskuragarritasuna frogatzen badu, baimena emango zaio kontratistari obrak hasteko, eta egikaritzeko epea zenbatzen hasiko da akta sinatu eta hurrengo eginetik. Kontratistak proiektuaren bideragarritasunaren inguruko erreparorik adierazi ez badu, eta obra egikaritzeari eragin diezaioketen beste ohar batzuk egin baditu, zuzendaritzak kontuan hartuko ditu ohar horiek, eta erabaki beharko du obra hastea edo hasiera etetea, aktan bertan justifikatuz. Hasteko baimena berariaz azalduko da bertan, eta sinatzean kontratistari jakinarazitakotzat joko da.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Aurreko paragrafoak adierazitako inguruabarrak frogatuta gelditzen ez direnean, edo obraren zuzendaritza fakultatiboaren ustez proiektatutako obrak aldatzea beharrezkoa denean, horien hasiera etengo da, eta aktan jasota gelditukо da hori. Orduan ezinbestekoa da administrazioari jakinaraztea, hark dagokiona ebazteko. Aldaketaren prozedurak jarraitu egingo dio APKLEOaren 141. artikuluan aurreikusitakoari, eta bere araubidea izango da SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitakoa.

6.- SPKLaren 245.b) artikuluari jarraituz, kontratua suntsiaraztea ekarriko du obren hasiera lau hilabetetik gora eteteak.

7.- Hasiera eteteko arrazoia desagertutakoan, kontratazio organoak dagokion ebazpena emango du, eta hori kontratistari modu fede emailean jakinaraziko zaio. Egikaritzeko epea zenbatzen hasiko da obren hasiera baimentzeko erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik.

Aurretik xedatutakoa berdin aplikatuko da kontratistak zuinketa egiaztatzeko ekitaldian erreparoak azaldu baditu. Dena den, kontratazio organoaren iritziz erreparo horiek funtsik ez badute, obren hasiera ez da etengo eta, ondorioz, beste erabaki bat eman beharko da horiek hasteko eta horiek egikaritzeko epearen zenbaketa aldatzeko.

8.- Zuinketa egiaztatzeko akta kontratuaren zati izango da, haren galdagarritasunaren ondorioetarako.

43.- Lan programa

1.- Ezaugarrien taularen 21. atalean hala jasota dagoenean, enpresa kontratistak, bakarrak edo lote bakoitzekoak, obren zuzendaritza fakultatiboari bere eskaintzan sartutako lanaren programaren garapen egokia aurkeztu beharko dio, kontratua formalizatu eta 15 egun balioduneko epean, APKLEOaren 144.3. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.- Lan programak ezingo ditu inola ere aldatu kontratuko baldintzak, nahiz eta proposatu ahalko duen guztizko epea murrizteko, baldin eta administrazioaren kreditu eskuragarritasunak aukera ematen badu aldaketa horietatik eratorritako urteko ordainketen doikuntzak egiteko, horrek inola ere ez badakar obraren guztizko adjudikazio aurrekontua igotzerik.

3.- Foru Aldundiaren organo eskudunak ebazpena emango du programaren inguruan, aurkeztu eta hamabost egun naturaleko epean, eta bertan sartu ahal izango ditu aldaketa batzuk edo preskripzio batzuek betetzea, non eta ez duen kontratuaren klausulen aurka egiten.

4.- Behin laneko programa onartutakoan, kontratuari gehituko zaio, eta, hala badagokio, urteko ordainketak doituko dira.

5.- Laneko programa egokitu egin beharko du enpresa kontratistak, kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, eta hura finkatu edo eguneratu egin beharko da, administraziotik jasotako jarraibideen arabera.

6.- Enpresa kontratistak bere lan programa egokituko eta koordinatuko du, ukitutako zerbitzuak kenduta eta birjarrita, bai kontratuan sartzen direnak bai Iberdrola SA, Telefónica de España SAU, Euskaltel SA eta Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SA SME eta gasa hornitzeko enpresak bezalako enpresenak.

7.- Obra zuzendaritzak adostu ahalko du ziurtagiriei biderik ez ematea enpresa kontratistak bere lan programa behar bezala aurkeztu arte, eta horrek ez du berandutze interesetarako eskubiderik ekarriko, hala badagokio, ziurtagiri horiek ordaintzea berandutzeagatik.

44.- Laneko segurtasun eta osasun plana

1.- Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta osasunaren plan bat egin beharko du, 1627/1997 Errege Dekretuaren, urriaren 24koaren, eraikuntza obretan segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenaren, 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hura bi bider aurkeztu beharko dio administrazioari, kontratua formalizatu eta hamaika egun naturaleko epean. Segurtasuneko eta osasuneko planak ezingo ditu inola ere aldatu kontratuko baldintzak, eta, bertan, besteak beste, aurreikusitako azpikontratazioak azaldu beharko dira, hala badagokio.

Plan hori, koordinatzailearen dagokion txostenarekin, Aldundiaren organo eskudunari bidaliko dio, edo besterik ezean, zuzendaritza fakultatiboak, onartu dezan, obrak hasi aurretik. Ondore horietarako, osasuneko eta segurtasuneko koordinatzaileak txostena egingo du onartzearen bidezkotasunaren inguruan, jaso eta zazpi egun naturaleko epean. Ezezkoa bada, zuzendu beharreko puntuak adieraziko ditu, eta

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

horretarako zuzenketen garrantziarekin bat datorren epe bat ezarriko da, gehienez ere zazpi egun naturalekoa.

Edozein kasutan, laneko segurtasunaren eta osasunaren plana onartzeko epea hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Enpresa kontratistak aurreko paragrafoan adierazitako epeak bete ez dituelako posible ez bada obrak hastea horiek hasteko baimena jasotzean, ezingo du arrazoi horregatik epea luzatzeko erreklamaziorik egin.

2.- Koordinatzaileak edo horretarako izendatutako zuzendaritza fakultatiboan sartutako pertsonak agindu ahal izango du obra osoa edo zati zehatzen bat behin-behinean geldiarazteko, hautematen bada osasunaren eta segurtasunaren alorreko neurriak ez direla betetzen, eta horrek pertsonentzako berehalako arrisku larria dakarrela. Kasu horietan, berehala jarriko du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza eta gainerako interesdunak gai horren jakinaren gainean, 1627/1997 Errege Dekretuaren, urriaren 24koaren, 14. artikuluari jarraituz.

3.- Ez da obrarik hasiko laneko segurtasunaren eta osasunaren plana onartu ez bada. Obrak iraun bitartean agintzen bada obrak geldiarazteko enpresa kontratistak edo azpikontratistak ez dituelako bete osasunaren eta segurtasunaren alorreko neurriak, obra edo zatia geldirik dagoen aldia zenbatzen jarraituko da egikaritzearen epearen ondoreetarako, eta egikaritzea suntsiaraztea ekarri ahalko du, SPKLaren 193., 195. eta 237. artikuluei jarraituz.

4.- Kontratuaren xedea lotetan banatu behar bada, kontratistak laneko segurtasunaren eta osasunaren plana egin beharko du, adjudikazioa jaso duen loteari dagokiona.

45.- Beste batzuei eragindako kalteak eta galerak

1.- Enpresa kontratista kontu handiz ibiliko da hirugarrenei kalteak eta galerak saihesteko, eta bere erantzukizuna izango dira, eta ez beste inorena, obrak egikaritzetik zuzenean edo zeharka sortu daitezkeenak.

Kontratistak ordaindu beharko ditu kontratua egikaritzeak eskatutako eragiketen ondorioz berak edo beraren mendeko langileek edo bitartekoek hirugarrenei sortutako kalte eta galera guztiak. Kalte eta galera horiek administrazio baten agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio denean, erantzule izango da, legeek adierazitako mugen barruan.

Kontratua enpresa batek baino gehiagok egikaritzen badute, guztiak izango dira klausula honek aipatutako erantzukizunen arduradun, modu solidarioan.

2.- Enpresa adjudikaziodunak une oro izango du aseguru bat hirugarrenei –pertsonei eta gauzei– eragindako aipatutako kalte eta galerei erantzuteko, baita administrazioari eta haren mendeko langileei kontratuaren iraunaldian eragindakoei ere. Ezaugarrien taularen 24. atalean ezarritako zenbatekoko estaldura izango du, gutxienez.

3.- Poliza horren indarraldia, gutxienez, kontratuaren iraunaldi osoan mantendu beharko da (luzapenak barne, hala badagokio), baita dagokion berme aldian ere (luzapenak barne, hala badagokio).

46.- Obretan gertatutako kalteak

1.- Enpresa kontratistak, bere jarduera garatzeko beharrezko aseguru guztiez gain, bere kostura aseguru bat hartu beharko du, egindako obrek eta egiten ari direnek jasan ditzaketen kalteak estaltzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundia aseguratu moduan sartu beharko du. Gutxieneko zenbatekoa ezaugarrien taularen 24. atalean ezarrita dago, eta istripuren bat izatekotan, kontratazio organoa agertu beharko da onuradun moduan. Honako hauek izango dira estaldurak:

a) Hauetatik eratorritako kalte edo galera materialak: sutea, tximista, eztanda, lapurreta, espoliazioa, kolpea, trebetasunik eza, zabarkeria, ekintza bandalikoak eta asmo txarrekoak, naturaren arriskuak eta/edo beste edozein arrisku.

b) Hauetatik eratorritako berme gehigarriak:
   - Diseinu akatsa, enpresa fabrikatzailearen arriskua.
   - Aparteko orduen gastuak, eraisketa hondakinak kentzea, eraistea, autoritateak hartutako neurriak eta abar.
   - Aurretik zeuden kalteak, sabotajea.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

- Greba, matxinada, nahasmen zibila.

2.- Aseguruak estalita gelditukо da kausa eraikuntza aldian duen edozein galera edo kalte, baita etapa horretan edo gerokoetan obra kontratuetan ezarritako obligazioak modu egokian betetzeko egindako lanak egikaritzearen ondorioz izandakoak.

3.- Poliza horren indarraldia, gutxienez, kontratuaren iraunaldi osoan mantendu beharko da (luzapenak barne, hala badagokio), baita dagokion berme aldian ere (luzapenak barne, hala badagokio).

4.- Obra jasotzean, egiaztatu beharko da poliza indarrean egongo dela beste urtebetez, jasotzeko datatik zenbatzen hasita, eta dagokion prima osorik ordaindu dela.

47.- Kontratuaren aldaketak

1. Kontratua burutzen denean, bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango dira bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako 22. atalean, edo SPKLaren 205. artikuluan ezarritako balizkoetan.
2. Edozein kasutan, kontratistarentzako nahitaezkoak izango dira ezaugarrien taularen 22. atalean aurreikusitako aldaketak, eta SPKLaren 205. artikuluan jasotako kontratuaren aldaketekin bat datozenak, banaka edo batera aldaketek ez badakarte kontratuaren hasierako prezioa % 20 baino gehiago aldatzea, BEZ kanpo.
3. Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Horrek, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
4. Kontratuaren aldaketak formalizatu egin beharko dira, dokumentu administratiboan, SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio behin betiko bermea aurretik doituta.
5. Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.
6. Kontratuaren aldaketak

Obrako zuzendari fakultatiboak beharrezkotzat jotzen duenean kontratua aldatzea, kontratazio organotik baimena eskuratuko du dagokion espedientea irekitzeko. Honako jarduketa hauek hartuko ditu barne:

a) Proiektuaren aldaketa idaztea eta haren onespen teknikoa.
b) Kontratistaren eta proiektuaren idazlearen entzunaldia, gutxieneko epea: hiru egun.
c) Kontratazio organoak espedientea onestea, baita beharrezko gastu osagarriak ere.

Dena den, honako hauek ez dira aldaketatzat joko:

i. gehiegizko neurketak, eta horrelakotzat ulertuta obra ondo egin bitartean proiektuaren neurketetan aurreikusitakoekin alderatuta egiaz egikaritutako kopuruan soilik gertatutakoa, baldin eta oro har ez badakarte hasierako kontratuaren ehuneko 10 baino igoera handiagoa. Gehiegizko neurketa horiek obraren amaierako egiaztagirian jasoko da.
ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta bere garapen arauetan ezarritako prozedurek modu kontraesankorrean finkatutakoak, baldin eta ez badakarte kontratuaren prezio globala igotzea, eta ez badiete obra unitateei eragiten, guztira kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 3 gainditzeko moduan.

47.1.- Aurreikusitako aldaketak

1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, agiri honen ezaugarrien taularen 22. atalean zehaztutakoari jarraituz, bertan ezarritako inguruabarretan, bertako baldintzen, irismenaren eta mugen barnean.

2.- Aurreikusitako aldaketek inola ere ezin dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea, ezta kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hogei gainditzea ere.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

3.- Atal honetan ezarritako eskumenaren inguruko erabakiak hartzeko ezarritako prozedura, behin kontratuaren arduradunak kontratua aldatzeko proposamena idatzitakoan, eta kontratistarekin eta proiektuaren idazlearekin (hala badagokio) entzunaldia egin ondoren, gutxienez hiru eguneko epean, Kontratazio Organoari bidaliko zaio, onartu dezan.

Behin aldaketa onartutakoan, formalizatu egin beharko dira, dokumentu administratiboan, SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio behin betiko bermea aurretik doituta.

47.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Ezaugarrien taulako 22. atalean aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLaren 205.2 artikuluan jasotzen diren kasu tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, baldin eta aldaketa horiek mugatzen badira eragile izan duten arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketei erantzutera.

2.- Atal honetan ezarritako eskumenaren inguruko erabakiak hartzeko ezarritako prozedura, behin kontratuaren arduradunak kontratua aldatzeko proposamena idatzitakoan, eta kontratua aldatu aurretik, entzunaldia eman beharko zaio proiektuaren idazleari, proiektua kontratazio organotik kanpoko hirugarren batek prestatu badu zerbitzu kontratu baten ondorioz. Helburua da hiru eguneko edo gehiagoko epean egoki iritzitako oharrak egitea.

Aldaketek ekartzen dutenean proiektuan aurreikusi gabeko obra unitateak sartzea, edo haien ezaugarriak bertan jasotakotik aldatzea, eta ez bada beharrezkoa beste lizitazio bat egitea, haiei aplikatu beharreko prezioak izango dira administrazioak gutxienez hiru egun balioduneko epean kontratistarekin egindako entzunaldiaren ondoren ezarritakoak. Kontratistak finkatutako prezioak onartzen ez baditu, kontratazio organoak beste enpresari batekin kontratatu ahalko ditu, finkatutako prezio berberetan, zuzenean egikaritu ahal izango ditu, edo kontratua suntsiaraztea erabaki ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz.

3.- Aldaketa kontratistarentzat nahitaezkoa denean, behin entzunaldi tramitea egindakoan, kontratazio organoari bidaliko zaio, onetsi dezan.

4.- Aldaketa kontratistarentzat nahitaezkoa ez bada, hura kontratazio organoak erabakiko du soilik kontratistak idatziz adierazten badu ados dagoela. Bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, 211. artikuluaren 1. apartatuko g) hizkian ezarritakoari jarraituz.

47.3.- Aldaketa-araubidea

Haren araubideari dagokionez, SPKLren 203.etik 207.era bitarteko artikuluetan eta 191. eta 242. artikuluetan xedatutakoa beteko da, bai eta erregelamendu bidez xedatutakoa ere.

48.- Obrak etetea

1.- Exekuzioa etetearen arrazoia ezaugarrien taulako 9. puntuan aurreikusitakoa bada, ondorioak koadroko 31.2 puntuan adierazitakoak izango dira.

2.- Administrazioak erabaki ahal izango du kontratua egikaritzea etetea, interes publikoko arrazoiak tarteko. Horrez gain, bidezkoa izango da kontratua etetea, SPKLaren 198.5. artikuluan jasotako inguruabarraren kasuan. Kontratua etetearen ondoreetarako, SPKLaren 208. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, baita APKLEOaren 103. artikuluan, eta Estatuko obrak kontratatzeko klausula administratibo partikularren agiriaren 63. klausulan eta hurrengoetan jasotakoari ere.

3.- SPKLaren 208. artikuluari jarraituz, administrazioak erabakitzen badu kontratua etetea, edo etete hori gertatzen bada SPKLaren 198.5. artikuluan xedatutakoa aplikatu delako, administrazioak kontratistari egiaz jasandako kalteak eta galerak ordaindu beharko dizkio.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

49.- Neurketak, balorazioa eta konturako ordainketak

1.- Kontratistari soilik ordainduko zaio proiektuaren dokumentuaren arabera egindako obra.

2.- Ezingo da inolako ziurtagiririk egin, eta, ondorioz, ezin da ordainketarik egin, kontratua formalizatu arte.

3.- Obra zuzendaritzak hilean behin neurtuko ditu egindako lanak, eta kontratista neurketa horietan egon ahalko da. Gero edo behin betiko ezkutuan gelditu behar duten dimentsioak edo ezaugarriak dituzten obren edo obren zatien kasuan, kontratistak nahitaez behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar du, zuzendaritzak dagozkion neurketak egin eta beharrezko datuak hartu ditzan. Horiek definitzen dituzten planoak egingo ditu, eta kontratistak sinatu egingo ditu, adostasuna adierazteko. Aurretik jakinarazi ezean, gai horren inguruan administrazioak hartutako erabakiak onartu beharko ditu nahitaez. Lehen hori frogatzea kontratistari dagokio.

4.- Obra mota bakoitzarentzat proiektuan adierazitako neurketa unitatea hartuko da, neurketei dagokien zatian adierazitakoa. Behin neurketa amaitutakoan, zuzendaritza fakultatiboak hilean behin jatorrian balioetsitako zerrenda idatziko du.

5.- Egikaritutako obra balioetsiko da obra unitate bakoitzarentzat proiektuaren unitateko prezioen taulan jasotako egikaritze materialaren prezioekin eta behar bezala baimendutako eta kontratuan aurreikusi gabeko obra unitate berrien prezioekin, kontuan hartuta dagozkion agirietan zer adierazten den akastun obren, bildutako materialen, altxatutako partiden eta obrako taldearen konturako ordainketen inguruan.

6.- Aurreko paragrafoan adierazitako moduan lortutako balioespenari APKLEOaren 131. artikuluan adierazitako ehunekoak handituko zaizkio, aurrekontua sortzeko hartutakoak, eta emaitzari adjudikazio koefizientea biderkatuko zaio. Horrela, hileko zerrenda balioetsia lortuko da, hileko ziurtagiria ekarriko duena. Administrazioak hura igorriko du, dagokion hilaren hurrengo hamar egunetan.

7.- Ondorio horietarako, abantailatsuen iritzitako proposamenari adjudikazioa emateko ebazpenean, administrazioak behin betiko finkatuko du adjudikazio koefizientea.

Adjudikazio koefizientea izango da enpresa adjudikaziodunak bere proposamenaren eskaintza ekonomikoan adierazitako prezioaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko erlaziotik lortutakoa.

Obrak egikaritzean indarrean egongo diren unitateko prezioak administrazioak onetsitako proiektuan jasota daude, eta enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikotik eratorritako adjudikazio koefizienteak eraginda.

8.- Aurrekontuan oroharreko prezioan adierazitako partidak balioetsi eta ordainduko dira preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako moduan. Bestela, APKLEOaren 154. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

9.- Justifikatu beharreko partida altxatuak ordaintzeko, eta jarduketak ez datozenean bat obra unitateen aplikazioarekin, administrazioak aukera izango du, aurretik baimenduta, hirugarrenen bidez fakturatzeko, obren zuzendaritza fakultatiboa ados badago. Fakturatutako zenbateko likidoa enpresa kontratistak ordainduko du, eta administrazioak itzuliko dio, hurrengo hileko obra egiaztagirian sartuta. Zenbateko hori igo egingo da, gastu orokorren kontzeptuagatik % 13ko ehunekoa aplikatuz, eta ez da beste inongo igoeraren edo adjudikazio beherapenaren mende egongo.

10.- Balioetsitako zerrenda tramitatzearekin batera, obra zuzendaritzak ale bat bidaliko dio kontratistari, adostasuna edo erreparoak adierazi ditzan. Hark egoki iritzitako alegazioak egin ahal izango ditu, jaso eta hamar egun balioduneko epean, gehienez ere.

Behin aldi hori igaro denean, kontratistak alegaziorik egin ez badu, balioetsitako zerrendarekiko adostasuna adierazi duela ulertuko da. Bestela, kontratistaren alegazioak osorik edo hein batean onartuz gero, kontuan izango dira hurrengo balioetsitako zerrenda idaztean edo, bestela, kontratuaren azken ziurtagirian edo likidazioan.

11.- Faktura formatu elektronikoan aurkeztu beharko da abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoak, eta abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, ezartzen dituzten balizkoetan.

Balizko horietan, Gipuzkoako lurralde historikoko faktura elektronikoen sarrera puntu orokorraren bitartez faktura elektronikoa aurkezteak idazpen automatikoa sorraraziko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

erregistro orokorrean, eta beste idazpen bat, halaber, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak kudeatzen duen fakturen kontabilitate erregistroan

12.- Administrazioak nahitaez ordaindu beharko du prezioa obra ziurtagiriak onetsi eta hurrengo 30 egunen buruan, eta, berandutzen bada, kontratistari berandutze interesak eta kobrantza kostuak ordaindu beharko dizkio 30 eguneko epe hori amaitu ondorengo egunengatik, baita 3/2004 Legean, abenduaren 29koan, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituenean, aurreikusitako moduan.

13.- Edonola ere, kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkeztu, faktura elektronikoaren inguruan indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzetan, 30 egun naturaleko epean, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta 30 egun naturaleko igaro arte administrazioak, hala badagokio, faktura ontzat eman gabe eta ordaindu gabe.

Hori oztopatu gabe, kontratuan aplikagarriak diren urteko ordainketen zenbatekoa gainditzen duten ziurtagirietan ez da zenbatuko legez aurreikusita bezala onespen datatik hasitako epea, baizik eta adostutako baldintzen eta onetsitako lan programaren araberako beranduagoko datatik.

14.- SPKLren 210. artikuluaren 4. apartatuan eta 243. artikuluaren 1. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, Administrazioak obra-ziurtagiriak edo entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu, ondasunak eman edo zerbitzua eman eta hogeita hamar eguneko epean.

15.- Fakturek datu hauek izan beharko dituzte:

- Entitate kontratatzailearen identifikazioa.
- Kontratazio-organoaren identifikazioa.
- Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen organoaren identifikazioa.
- Kontratatutako prestazioaren hartzailearen identifikazioa.

16.- Kontratistak, agiri honen ezaugarrien taularen 26. atalean adierazitako baldintzetan, eta aurretik idatziz eskatzen badu, eskubidea izango du bildutako materialengatik eta instalazio edo ekipamenduengatik konturako ordainketak jasotzeko, horretarako APKLEOaren 155. eta 157. artikuluek xedatutako bermeekin. Zenbatekoa eta baldintzak aipatutako 26. atalean jasota daude. Aipatutako ordainketak aseguratu egingo dira, atal horretan zehaztutako bermea emanez.

50.- Obraren egikaritzea amaitu dela ohartaraztea

Kontratistak, ezaugarrien taularen 29. atalean aurreikusitako aurrerapenarekin, idatziz jakinaraziko dio obra zuzendaritzari kontratua amaitzeko edo egikaritzeko aurreikusitako data, hura jaso ahal izateko. Jakinarazpen hori tramitatzeko prozedura eta epeak, jasotzeko ordezkaria izendatzeko eta ikuskaritzari egin beharreko jakinarazpena APKLEOaren 163. artikuluan xedatutakoaren araberakoak izango dira.

51.- Obraren harrera

1.- Kontratua kontratistak betetakotzat joko da, xedea oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Administrazioaren adostasunarekin gauzatu duenean.

2.- Kontratuaren xedea amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, kontratuaren xedearen harrera egingo da ekitaldi formal baten bidez.

3.- Obrak egoera onean badaude, eta aurreikusitako preskripzioen araberakoak badira, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario tekniko ordezkariak jasotzat emango ditu, eta dagokion aktaren lau ale egingo dira, jasotzeko ekitaldira bertaratutakoek sinatu beharko dituztenak. Ale bat administrazioaren funtzionario teknikoari emango zaio, beste bat zuzendaritza fakultatiboari eta beste bat kontratistari. Orduan hasiko da berme aldia. Jasotzeko aktan, zuzendaritza fakultatiboak data ezarriko du neurketa nagusia hasteko, eta kontratistari ekintza hori jakinaraziko zaio.

4.- Kontratistak nahitaez bertaratu behar du obra jasotzera. Hari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik obligazio hori betetzen ez badu, administrazioaren ordezkari batek aktaren ale bat bidaliko dio, hamar eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egin ditzan. Horien inguruko ebazpena kontratazio organoak emango du.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

5.- Obrak ez badaude jasotzeko moduan, hori jasota gelditukо da aktan, haien zuzendaritza fakultatiboak hautemandako akatsak adieraziko ditu, eta beharrezko jarraibideak emango ditu. Horrez gain, akatsak konpontzeko epe bat ezarriko du. Epe hori igaro ondoren kontratistak ez badu egin, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango da, kontratistari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik.

52.- Neurketa orokorra eta azken ziurtapena

1.- Behin obrak jasotakoan, neurketa orokorra egingo da, eta kontratista azalduko da bertara. Zuzendaritza faktultatiboak proiektuaren arabera neurtuko ditu egiaz egikaritutako obrak, jaso eta hilabeteko epean. Obrak jaso eta 3 hilabeteko epean kontratazio organoak onartu egin beharko du egikaritutako obren amaierako egiaztagiria. Hura, hala badagokio, kontratistari ordainduko zaio, SPKLaren 198.4. artikuluan aurreikusitako epean, kontratuaren likidazioaren kontura.

2.- Hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten obren kasuan, likidazio eta neurketa eragiketak bereziki konplexuak badira, agiriek aurreikusi ahal izango dute amaierako ziurtagiria onesteko hiru hileko epea luzatu egin ahalko dela, non eta ez duen bost hilabeteko epea gainditzen, SPKLaren 243.1. artikuluaren azken paragrafoan xedatutakoari jarraituz. Amaierako ziurtagiria onesteko epea araututa dago ezaugarrien taularen 30. atalean.

53.- Berme-epea eta likidazioa

1.- Berme aldia jasotzeko datatik hasiko da zenbatzen, eta ezaugarrien taularen 16. atalean adierazitakoa izango da. Berme aldian kontserbazio eta zaintza gastuak kontratistaren konturakoak izango dira. Loteen kasuan, berme aldia lote bakoitzarentzat zenbatuko da, banaka.

2.- Epe horretan behin betiko bermearen epeak SPKLaren 110. artikuluan adierazitako kontzeptuei, aplikagarriak direnei, erantzungo die.

3.- Epe horretan, kontratista arduratuko da obrak kontserbatzeaz eta zaintzeaz, hala badagokio, proiektuaren preskripzio tekniko partikularren agirian aurreikusitakoari eta obra zuzendaritzak emandako jarraibideei dagokienez. Administrazioaren iritziz, behar bezala kontserbatzen ez badu, eta obra arriskuan badago, administrazioak berak egingo ditu, kontratistaren kontura, kaltea saihesteko beharrezko lanak.

4.- Jasotze partzialak badaude, jasotako zatien berme aldia dagozkion jasotze partzialen datetatik hasiko da zenbatzen.

5.- Berme aldia amaitu aurreko hamabost eguneko epean, zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta, txosten bat egingo du obren egoeraren inguruan. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun guztietatik libre gelditukо da, SPKLaren 244. artikuluan xedatutik izan ezik. Kontratua likidatuko da, eta, hala badagokio, ordaintzeko dauden obligazioak ordainduko dira, gehienez ere 60 eguneko epean. Txostena ez bada aldekoa, eta hautemandako akatsen arrazoia obrak egikaritzeko gabeziak badira eta ez eraikitakoaren erabilera, zuzendaritza fakultatiboak berme aldian kontratistari dagozkion jarraibideak emango ditu, eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Horretarako, epe jakin bat emango dio, eta epe horretan obra kontserbatzeaz arduratzen jarraituko du, berme aldia luzatzeagatik inongo zenbatekorik jaso gabe.

6.- Edozein kasutan, berme aldia igarotakoan, txostena aldekoa bada edo, bestela, eraikitakoa konpondutakoan, zuzendaritza fakultatiboak hilabeteko epean egingo du egiaz egikaritutako obren likidazio proposamena. Kontratistari jakinaraziko zaio hamar eguneko epean adierazi behar duela ados dagoela, edo egoki iritzitako erreparoak adierazi behar dituela. Bi hilabeteko epean, kontratistaren erantzunetik edo horretarako ezarritako epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, kontratazio organoak likidazioa onartu behar du, eta, hala badagokio, bertatik eratorritako saldoa ordaindu behar du.

7.- Interes publikoko salbuespenezko arrazoien, espedientean behar bezala justifikatutakoen, ondorioz kontratazio organoak erabakitzen badu obra egiaz okupatzea edo erabilera publikorako zerbitzuan jartzea, jasotzeko ekitaldi formala bete gabe ere, inguruabar horiek gertatzen direnetik sortuko dira obra jasotzeko ekitaldiaren berezko ondoreak eta ondorioak, APKLEOaren 168. artikuluan xedatutako baldintzetan.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

54.- Ezkutuko akatsen gaineko erantzukizuna

1.- Obra hondatzen bada edo bere funtzioarekin bateragarriak ez diren kalte larriak jasaten baditu berme aldia amaitu ondoren, eraikuntzan akats ezkutuak zeudelako, kontratistak kontratua bete ez izanagatik, hura jaso eta hamabost urteko epean sortutako edo azaleratutako kalte eta galeren erantzule izango da.

2.- Horrez gain, kontratistak epe horretan izango du erantzukizuna zimentazioari, euskarriei, habeei, forjatuei, zama hormei edo egiturazko beste elementu batzuei eragiten dieten akatsek edo okerrek obran eragindako kalteengatik, eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna arriskuan jartzen dutenengatik. Epe hori obra erreparorik gabe jasotzeko datan hasiko da zenbatzen, edo akatsak zuzendu zirenetik.

3.- Aurreko atalean akatsen edo okerren ondoriozko kalte materialengatik aurreikusitako erantzukizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskribatuko dira, kalte horiek sortzen edo azaleratzen diren unetik zenbatzen hasita, kontratua bete ez izanaren erantzukizunak eskatzeko ekintzak iraun dezaketen arren.

4.- Behin epe hori igaro bada inongo kalterik edo galerarik azaleratu gabe, guztiz iraungita geldituko da kontratistaren erantzukizuna.

55.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, SPKLaren 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoaz gain, SPKLan adierazitako funtsezko betebeharrak, 38.3. eta 38.4 klausuletan adierazitakoak, eta ezaugarrien taularen 20. atalean kontratuaren funtsezko obligazio moduan jasotakoak, ez betetzea.

2.- SPKLaren 211.2. artikuluari jarraituz, kontratua suntsiarazteko hainbat arrazoi badaude, iraungitzearen ondorio ekonomikoei dagokienez eragin ezberdinak dituztenak, denboran lehenik agertutakoari jarraitu behar zaio.

3.- Kontratazio organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, SPKLaren 212.1. artikuluan xedatutakoari jarraituz, arauz ezarritako moduan tramitatutako prozeduraren bidez.

4.- Kontratua kontratistaren erruzko ez-betetze baten ondorioz suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio eta, gainera, administrazioari kalte ordainak eman beharko dizkio sortutako kalte-galerengatik, konfiskatutako zenbatekoa gainditzen duten heinean. Kontratistak kalte ordainetan ordaindu beharreko kalte-galerak kontratazio organoak zehaztuko ditu, harekin egindako entzunaldi baten ondoren, eta, besteak beste, honako faktore hauei erreparatuko zaie: proiektatutako inbertsioarentzat dakarren atzerapena eta administrazioari sortutako gastu handiagoak.

5.- Suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, SPKLaren 212. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta, bere ondoreetarako, SPKLaren 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoari, baita, hala badagokio, bere arauzko garapenean xedatutakoari.

6.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izan daitezke, halaber, honako hauek:

a) Kontratua egikaritu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

   Kontratuaren suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskatuz gero bakarrik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek ukitutako langileak SPKLaren 130. artikuluarekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak direnean eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren adjudikazio prezioaren % 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak ofizioz erabaki ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

b) Agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.

7.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkarteko kideetakoren bat SPKLaren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jasotako kasuan badago, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

8.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren % 5aren multiploa direnean, kontratazio organoak kontratua suntsitzea edo, zehapen berriak ezarriz, kontratuak jarraitzea erabaki ahal izango du.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

56.- Obrak ondare eta eskubideen inbentario nagusira gaineratzea

Inbentariatu daitezkeen obren, eta, hala badagokio, hobekuntza obren ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean sartzeko, enpresa kontratistak obra jasotzeko ekitaldian obra zuzendaritzari emango dio egikaritutako obraren dimentsioen eta ezaugarrien egoera deskribatzen duen dokumentazioa, zehatz-mehatz definituko dituena egindako obrak, jasotzeko unean dauden egoeran.

57.- Kontraesanak

Kontraesanik badago zehaztapen ekonomiko eta administratiboei dagokienez, proiektua osatzen duten dokumentuen eta klausula administratibo partikularren agiriaren artean, agiri honetan jasotako klausulak gailenduko dira.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

I.- ERANSKINA - LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. **Kontratazio prozeduretako izapideetarako lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko beharkizunak**

   1.1. Administrazio beharkizunak:

   a) Ziurtagiri digital bat izatea, lizitazio elektronikorako sisteman identifikazio eta sinadurarako bitarteko gisa onartuta dagoena. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko atariak momentu oro baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua erakutsiko du.

   b) Enpresak alta emanda egon behar du erregistro hauetakoren batean: EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan (ROC) edo Estatukoan (ROLECE) edo KPE-CPE lizitatzaileen barne-erregistroan.

   1.2. Beharkizun teknikoak:

   Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

2. **Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:**

   Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: https://www.contratacion.euskadi.eus/kpecpe-licitacion_electronica-kontratazioa_eu/w32-kpelicel/eu/

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:

945 016 298

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, helbide honetan: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek I. eranskin honen gehigarrian horretarako zehaztutako helbide elektronikora.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

*Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua (izena eta espediente kodea) adjudikatzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira[1]:

JAKINARAZPENETARAKO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Kalea, plaza, etorbidea...	**Zk.**	**Solairua**	**Eskua**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefono finkoa	**Mugikorra**		

Abisuetarako helbide elektronikoa:

Hartzailea:

Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza: Euskara ☐ Gaztelania ☐

[1] *Hainbat enpresak aldi baterako enpresa elkarte bat formalki osatzeko konpromisoarekin eskaintza bat edo parte hartzeko eskaera bat aurkezten badute, helbide bakarra aurkeztu beharko dute jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako.*

[2] *Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, kide bakoitzak EJZri buruzko datuak eskuratzeko baimen horren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.*

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUAK [2]

BAI ☐ EZ ☐ (markatu aukera)

BAIMENA EMATEN DIOT Gipuzkoako Foru Aldundiari, prozedura honetan, bitarteko elektronikoen bidez eska ditzan kasuan kasuko ogasunek ekonomia jardueren gaineko zergari buruz eman beharreko ziurtagiriak.

Tokia eta data:

Enpresaren izena

Sinadura

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

II. ERANSKINA.- KONTRATAZIO AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak KAEBa aurkezteak lizitazio prozedura honetan parte hartzeko agiri honetan zehaztutako AURREKO BETEKIZUNAK BETETZEAREN aurreko froga moduan balio du.

Lizitatzaileek KAEBa aurkeztu behar dute, hau da, kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egoera finantzarioaren, gaitasunen eta egokitasunaren erantzukizunpeko adierazpen bat, SPKLaren 140. artikuluari eta Batzordearen (EB) 2016/7 Egikaritze Erregelamenduari, 2016ko urtarrilaren 5ekoari, haren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituenari jarraituz.

Kontratazio organoak aurretik BAT zenbakiko fitxategi elektronikoan aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko ahalmenak erabili ahal izango ditu. Horretarako, dagozkion dokumentuzko egiaztagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du, 39/2015 Legearen 69. artikuluan jasotako baldintzetan.

Edozein kasutan, lizitatzaileak KAEBa aurkeztearekin bat doa konpromisoa hartzea, kontratuaren adjudikazioa aldekoa izanez gero, KAEBak ordezten dituen dokumentu justifikatzaileak aurkezteko, 33.2. klausulan xedatutakoari jarraituz.

2.- KAEB formulario normalizatua

KAEB formulario normalizatua lizitatzaileen esku dago honako helbide elektroniko honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Dokumentuan adierazitako betekizunak, edozein kasutan, lizitazioaren epeko azken egunean bete behar dira, kontratatzeko debekuen ingurukoak izan ezik; horiek gutxienez kontratua formalizatu arte iraun behar dute, eta administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu prozeduraren edozein unetan.

Adierazpena horretarako nahikoa botere duenak sinatu behar du.

Aurreikusten bada kontratuaren xedea **lotetan banatzea**, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala batetik bestera aldatuz gero, kaudimen betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote talde bakoitzeko KAEB bat aurkeztuko da.

Eskatutako bitartekoen atxikipena lizitatzailearen **kanpoko bitartekoekin** betetzen bada, KAEB bana aurkeztu beharko dute lizitatzaileko eta kontratua egikaritzera bideratutako bitarteko bakoitzeko.

Hainbat enpresak **aldi baterako** elkarte bat osatuz hartzen badute parte, hura osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena, eta bakoitzak KAEBaren formulario normalizatu bat aurkeztu beharko du. KAEBaren formulario normalizatuez, ABEEa eratzeko konpromisoaz edo behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentuaz gain, hala badagokio, BAT zenbakiko fitxategi elektronikoan lizitatzaileek adierazpen bat sartu beharko dute, enpresa talde baten parte izateari edo ez izateari buruzkoa, agiri honen V. eranskineko ereduaren araberakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatutako enpresek** ez dituzte nahitaez eman beharko inskribatuta eta eguneratuta dauden datuak, baldin eta hori KAEBaren formulario normalizatuan adierazten bada. Edozein kasutan, lizitatzaileak egiaztatu beharko du zein datu dauden egiaz inskribatuta eta eguneratuta eta zeintzuk ez. Eskatutako datu edo informazioren bat aipatutako lizitatzaileen erregistro horietakoren batean ez badago, edo bertan eguneratuta ageri ez bada, aurkeztu egin beharko da, formularioa betez.

KAEB formulario normalizatua erabiltzeari dagokionez, lizitatzaileek honako **dokumentu** hauek **kontsultatu** ahalko dituzte.

- (EB) 2016/7 Erregelamendua, honako webgune honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

- Estatuko Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, hemen eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2016-3392

4.- Prozedura honetarako formulario singularizatua duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

III. ERANSKINA - ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA OSATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

** Egokitu eredua adjudikaziodun izanez gero aldi baterako enpresa elkartea osatuko duten enpresa guztietako ordezkarien datuak txertatzeko.*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DUTE

1. Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziazko kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

2. Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

Izen-abizenak	

Tokia eta data:

Enpresaren izena *Sinadura*
Enpresaren izena *Sinadura*
Enpresaren izena *Sinadura*

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DU:

AKPPren Ezaugarri Taulako "Giza baliabideak eta baliabide materialak nahitaez atxikitzeko konpromisoa" izeneko 14. atalean agertzen diren bitartekoak kontratua gauzatzeko atxikitzeko konpromisoa hartzen duela, bai eta adjudikazioaren aurretik bitarteko horiek badituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztekoa ere.

Tokia eta data:

Enpresaren izena
Sinadura

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDE BATEN PARTE IZATEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO 1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DU:

Berak ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGO Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

☐ EZ DAGO Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren adjudikazioan parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

☐ BAI, kontratuaren adjudikazioan parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden enpresekin batera; enpresa horiek honako hauek dira:

IFZ	Sozietate izena

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:

“Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

Tokia eta data:

Enpresaren izena

sinadura

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

VI.- JARDUNBIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA, KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKOA, BETETZEAREN INGURUKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DU:

Lehenengo: Konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren **JARDUNBIDE KODEA ETA ERAKUNDE ZUZENTASUNAREN ESPARRUA, KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKOA**, bere baldintza guztietan betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2017ko irailaren 5eko bileran onetsitakoa, lizitatzaileentzat eskuragarri dagoena honako helbide elektroniko honetan:

https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-es.pdf/e014801b-3e70-fd79-8ac2-d63ea19aa374

Bigarren: Honako honen berri izatea:

1. «Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61.3 artikuluak (Interes gatazka) ezartzen duenez, interes gatazka egongo da funtzioen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako, afektuzko, kidetasun politiko edo nazionaleko, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko edozein arrazoirengatik.»

2. «Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikuluaren (Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa) xedea da lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzaile guztiei tratu berdintasuna bermatzea».

3. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan xedatzen duenez, prozeduran esku hartzetik abstenitu beharko dira administrazioetako agintari edo langileak hurrengo apartatuan aipaturiko egoeretakoren batean daudenean; honako hauek dira abstenitzeko arrazoiak:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Hirugarren: Ez daude EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitakoen artean interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez daukate Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio kausarik, lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokeenik.

Laugarren: Konpromisoa hartzen dute geroratu gabe jakinarazteko kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari egoera hori eragiten duen edo eragin dezakeen edozein interes gatazka edo abstentzio kausa.

Bosgarren: Badakite baldin eta interes gatazkarik ez dagoela adierazten bada eta hori faltsua dela frogatzen bada aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina, administrazio eta justizia ondorioak izango dituela.

Tokia eta data:

Enpresaren izena *Sinadura*

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

VII.- ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATUEN ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DU:

Eskaintzaren honako **agiri, informazio eta alderdi** hauek sekretu tekniko edo komertzialekiko loturagatik isilpekotzat jotzen ditu: [3]

1.-
2.-
3.-
……..…

Isilpeko izaera hori honako arrazoiekin justifikatzen da:

1.-
2.-
3.-
……..…

Tokia eta data:

Enpresaren izena	
	Sinadura

[3] Konfidentzialtasun aitortza ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztiari hedatu ezta eskaintza teknikoak egiaztatzen duen dokumentazio osoari ere. Kasu horretan, edo aitorpenaren norainokoa gaizki neurtuz gero, kontratazio organoak erabakiko du zein datu eta/edo agiri isilpekotzat hartu behar diren. Enpresak ez badu datu eta/edo dokumenturik berariaz isilpekotzat jo, aurkeztutako datu eta/edo dokumentuen artean isilpekorik ez dagoela ulertuko da. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren ezingo da isilpekotzat jo aurkezteko garaian hala izendatu ez diren datuak.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

VIII. ERANSKINA. ABAL EREDUA.

KREDITU ERAKUNDEAREN EDO ELKARREKIKO BERMEAREN SOZIETATEAREN DATUAK

Sozietate izena **IFZ**

Jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea:

Kalea, plaza, etorbidea... **Zk.** **Solairua** **Eskua**

Udalerria **PK** **Probintzia**

AHALDUNA(K)

Izen-abizenak **IFZ**

Goian adierazitako erakundea, eta, haren izenean eta ordezkari moduan, dokumentu honen beheko aldeko ahalordea askiestearen arabera egintza honetan obligazioa sortzeko bezainbeste botere du(t)en goian adierazitako pertsona/pertsonak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean honen abal-emaile moduan azaltzen da:

ABALATUTAKO PERTSONA EDO ERAKUNDEAREN DATUAK

Izen-abizenak / Sozietate izena **IFZ**

Berme mota
- ☐ **Behin-behinekoa** (SPKLaren 106. artikulua)
- ☐ **Behin betikoa** (SPKLaren 107. artikulua)

Abalatuak bere gain hartutako kontratuaren xedea edo obligazioa

Kontratazio organoa

Abalaren zenbatekoa (hizkiz eta zenbakiz)

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Abal hori solidarioki ematen da obligaziodun nagusiari dagokionez, eta esklusio onurari berariaz uko eginda, kontratazio organoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin, administrazio publikoen kontratuen legedian, hura garatzen duten arauetan eta 4/2007 Foru Arauan, martxoaren 27koan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoan, xedatutako baldintzei jarraituz

Abal hau indarrean egongo da kontratazio organoak edo haren izenean legez gaitutakoak baimena eman arte hura ezeztatzeko edo itzultzeko, Sektore Publikoko Kontratuaren Legean eta legedi osagarrian xedatuakoari jarraituz.

Tokia eta data:

Erakundearen sozietate izena:

Ahaldunen sinadura:

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

IX. ERANSKINA- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULEN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO BESTE ELEMENTU BATZUEN EREDUA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

Adierazitako proiektuaren obrak egikaritzeari dagokionez eskatutako baldintzen eta betekizunen jakinaren gainean egonda, honako prezio hau(ek) eskaintzen d(it)u, eta, hala badagokio, formulen bidez ebaluatu beharreko gainerako elementuen eskaintzak.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

ESKAINTZA EKONOMIKOA	
PREZIOA	€
BEZ (% 21)	€
GUZTIRA	€

Adjudikaziodun suertatuz gero, kontratua adjudikatu ondoren kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emateko konpromisoa hartzen du.

Adierazten du honako hauek kontuan hartu dituela eskaintza egitean:

- fiskalitate alorrean, ingurumenaren babesekoan, enpleguaren babesekoan, genero berdintasunekoan, lan baldintzenekoan, laneko arriskuen prebentzioan eta desgaitasuna dutenen gizarteratze eta laneratzekoan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako obligazioak, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko obligazio eta ingurumenaren babesa.
- zehazki eta gutxienez Gipuzkoako Eraikuntzako eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan baldintzak –bereziki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hitzarmen horren azken testukoak–, adieraziz kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei beste hitzarmen bat edo enpresa itun bat aplikagarria bazaie, sektorekoa baino onuragarriagoa, honako hau dela:

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

Tokia eta data:

Enpresaren izena	
	Sinadura

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

X.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK ETA EGIKARITZEKO BALDINTZA SOZIAL BEREZIAK EBALUATZEKO SISTEMAREN PROPOSAMENA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean:**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFZ:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
ADUNAKO IBARREKO BIDEAREN AZKEN ZATIA HOBETZEKO PROIEKTUA, GI-3610 ERREPIDEARI JARRAIPENA EMATEKO	1-NC-48/2023

ADIERAZTEN DU aipatutako enpresak, kontratua egikaritzean:

1. Kontratua egikaritzeko ... emakume kontratatu dituela, hau da, lanean dagoen plantilla guztiaren % ... .

2. Diagnosia egin duela enpresako emakumeen eta gizonen, edo prestazioaren onuradunen berdintasunaren egoeraren inguruan, eta horretatik abiatuta diseinatu eta aplikatu direla ... (zenbakia adierazi) berdintasun ekintza, ... pertsonarentzat onuragarriak izan direnak.

3. Berdintasunaren alorrean ... prestakuntza ordu diseinatu eta eman ditut, eta ... pertsonak hartu dute parte bertan.

4. Enpresako plantillako pertsona bat izendatu da, edo teknikari bat kontratatu da, berdintasun alorreko teknikari arduradun moduan.

5. Protokolo bat edo neurri espezifikoak onartu dira lanean sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta haien aurka egiteko, ... pertsonak hartu dute parte hura diseinatzen, eta ... pertsonari eragiten die edo ekartzen die onura.

6. Protokolo espezifiko bat onartu da enpresan genero hizkera erabiltzeko, hura diseinatzen ... pertsonak hartu dute parte, eta ... pertsonari komunikatu zaie.

7. Uztartze neurriak diseinatu eta aplikatu dira, eta ekintza horien onuradun izan dira ... pertsona, horietako ... emakumeak. Ekintzen funtsa izan da (adierazi dagokiona: emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna; bereziki, adingabeen eta mendekoen arreta errazteko berezko baliabideak, baliabide pribatuak edo soziokomunitarioak izatea, esaterako, zerbitzu txekeak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak: edo lanaldi hobekuntzak, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegiaren malgutasuna, telelana, edo zerbitzuak egokitzea edo berresleitzea.

8. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako neurri espezifikoak jasotzen dituen enpresa hitzarmena aplikatu da, eta bertatik ... (*kopurua adierazi*) ekintza egin dira. Horiek kontratua egikaritzean aplikatzeak ... pertsonari ekarri die onura.

9. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean ziurtagiri edo bereizgarri bat du, eta bertako ekintzak kontratua egikaritzeari aplikatzeak ... pertsonari ekarri die onura.

10. Plantillan 50 pertsona baino gehiago dituzten enpresen kasuan, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen % 2ko kontratazio kuota errespetatu eta bete da, eta enpresako plantillan guztira ... langile daudenez, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten ... pertsona daude.

11. Plantilla guztiarentzat, ... pertsonak osatutakoarentzat, errespetatu da sektorerako indarrean dagoen sektoreko eta lurraldeko hitzarmena.

ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc

12. Kontratua egikaritzean hizkuntzaren erabilera ez sexista baliatu da, eta emakumeen irudi baztertzaile guztiak edo estereotipo sexistak saihestu dira; horrez gain, berdintasun, presentzia orekatu, dibertsitate, erantzunkidetasun eta genero rol eta nortasun pluralitate balioen irudia sustatu da. Irizpide horien arabera egindako materialak, guztira (publizitatea, afixak, esku orriak, irudiak, dokumentuak eta abar) ... (*kopurua adierazi*) izan dira, eta ... pertsonako irismen eragina zenbatetsi da (*kopurua adierazi*).

13. Kontratuan jasotako hizkuntza betebeharrak bete ditu.

EKS | CSV: ACTAff35089b-6f0f-45be-943c-db93f0ede0bc
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLA-C-2026-0057_eus 1-NC-48/2023.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
MARTINEZ IRURETAGOIENA, Elixabete - Idazkari Teknikoa / Secretaria Técnica
Data / Fecha: 2026/10/07 11:44:15